

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko otsailaren 1a / 482. zenbakia



Maroko zerutik

Xabier Alberdik eta beste hiru lagunek globoan egindako bidaia

APATXI, GAZTETXOENDAKO GEHIGARRIA





Zure sukaldea.

Ibargarai 36-38 BERGARA. Tel./faxes: 943 76 70 58



Txuringo Jatetxea



- ~Menua eta karta
- ~Ezkontzak
- ~Jaunartzeak
- ~Txerrikumea, bildotsa,
baserriko oilaskoa labean erreta...

OSINTXU. Tel. 943 76 48 63



ATREBENTZIAEZPADA/ Badaukazu sagardotegira juteko ohiturarik?



LUIS BLÁZQUEZ
64 urte



MAITE MUXIKA
21 urte



JESUS FERNÁNDEZ
47 urte



FLORITA IZUSKITZA
74 urte



VALENTIN ORTIZ
68 urte



MIRIAM INTXAUSTI
35 urte

Ez naiz inoiz jun, eta jungo naizen be ez dakit. Hemen inguruan egongo balie, ba, igoal jungo nitzake, baiña ez dagonez... Kontua da askorik be ez dostela deitzen sagardotegixek.

Aspaldi ez naizela jun. Gus-tau, baiña, gustatzen jat. Egondako aldittan lagunekin jun izan naiz, eta oso ondo pasau izan dogu. Eta aurten be juteko asmuu daukat.

Ez daukat sagardotegixetara juteko ohitura haundirik, baiña noiz edo noiz egon izan naiz. Aurten, ondiokan be, ez dogu ezer pentsau, baiña, batek daki, igoal jungo gara.

Juteko desiatzen gare, asko gustatzen jaku. Jun zan urtian be bi edo hiru bider izan giñan. Eta aurten, denboraldixa zabalik dago ja, eta datorren hillian juteko plana egindda daukagu.

Urtian bi edo hirutan juten naiz. Astigarragara normalian, baiña Oiartzunera be jun izan naiz. Danak gustatzen jat. Lehenago kua-drillan juten giñan. Oin, andriakin.

Ez daukat juteko ohiturarik. Aspaldi egon nintzan, laneko lagun batzukin, baiña azken urtietan ez naiz jun. Dana dala, aurten banoia, datorren astian. Ahiztia dabil preparatzen.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK ONDO ZAINDUTAKO LORATEGIAK Oraingoan lorategien gaineko kontuekin gatzokizue. Inguruko herri batetik etorritako lagun batek esandako hitzak dira honakoak: "Zein lorategi polit eta ondo zainduak dituzuen Bergaran". Eta arrazoia du; nahiz eta ez gauden lorendako sasoirik egokienean. Zuek ere haiei erreparatu, eta ea zer iruditzen zaizuen. /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK / 5

KIROLAK / 10

GAZTE GARA / 13

Eolikorik ez irukurutzetan

Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak atzera bota du Irukurtzeta-Karakateko parke eolikoa.

Marokon zehar globoan

Xabier Alberdi Sato-k eta haren hiru lagunek Atlas inguruan hainbat globo hegaldi egin dituzte.

Etsaiak taldea gaztetxean

Etsaiak eta Parasma talde lekeitiarrak gaztetxean izango ditugu bihar, zapatua, 22:30ean.

IRAKURLEAK MINTZO

SAN JUAN BOSCO JAIA 2002

Miguel Altuna Goi Mailako LHB Institutuko batzorde antolatzaileak eskerrak eman nahi dizkie herriko enpresei, komertzioei eta banketxei, San Juan Bosco eguna aurrera eraman ahal izateko eskaini duten laguntza guztia-gatik.

BATZORDE
ANTOLATZAILEA

BESTE EKESANA

“ Ez dut nire burua zuzendaritzarako aurkeztuko, eta horrek arrazoi bat du: enpresa multinazional baten zuzendaritzan dudana ardura. Ezin izango nituzke zuzendari lanak zuzenean bete Gipuzkoako Ganberan. Oso ondo dabil, baina kargu hori hartzeko denbora izatea beharrezkoa da, eta hori falta dut nik. Lau urteko jardunarekin nahikoa da. Beste batzuei utzi behar zaie lekua. (...) Uste dut aurrera atera ditugula orain dela lau urte finkatu genituen erronka nagusiak. Estatuan erakunde aitzindaria gara teknologia berrietan eta horien erabileran. Era berean, proiektu garrantzitsu baten ere aurrera egin dugu: euskal ganberen bateratzean; hori Gipuzkoatik sustatu genuen, eta lortu egin dugu.

FERMIN MENDIZABAL
Gara/02-01-25

BERAIEK DINOE/ Ainhoa Agirreazaldegí



Garesti ala merke

Gure gizarte honetako bizimaila ertaineko gehientsuenok gehiegi gastatzen dugula abiapuntu hartuta, mintza gaitezen urrats bat aitzinera emanez. Zer da garestia eta zer merkea? Hasteko, zerbaitetan -berdin gastu "handi" nahiz "txiki"- dirua gastatu aurretik hirutan pentsatu behar genuke. Hirugarrenean ere merezi duela erabakitzen badugu, ez da hain garestia izango.

Beharrezkoa ez den hura da garestia. Berdin dio kafe bat, liburu bat, arropa bat, bidai bat edo auto bat izan. Aitzitik, norberari -edo hurkoari- aski mesede egingo dion hura merkea da. Batzuetan ez baita dirua garrantzitsua. Lagunarte batek objektiboki beharrezkoa ez zen afari bat justifika dezake. Egoera animiko batek behin bakarrik irakurriko dugun liburu bat justifika dezakeen bezala, edo bigarren eskuko auto xahar bat.

Garrantzia zeri ematen zaion, hor dago gakoa. Gure balore eskala zein den. Irribarre batek ez du edozein opari justifikatzen. Hori al zen irribarrea lapurtzeko modu bakarra? Orduan behar bada bai. Bazen beste aukerarik? Orduan behar bada ez. Errazegi irekitzen dugu egun kartera. Hirutan pentsatu gabe. Horregatik galdetu behar genioke geure buruari, ezer erostea bururatzen zaigun aldiro, beharrezkoa al den.

"Batzuetan -batzuetan bakarrik-, dirua ez baita garrantzitsua". Dirua inoiz ez da garrantzitsua, baina beti zaindu behar da. Alferrik gastatu, behintzat, ez. Dirua, ez daukagunean bakarrik da garrantzitsua. Eta munduan bada hainbat lagun, gure euro batekin, bere sabeleko bi egunetako eta buruko astebeteko gosea estal dezakeena. Eta hala ere dirua ez dela garrantzitsua erantzungo digute. Horiek bai ikasi dutela diruaren erabilera neurtzen.

“Dirua inoiz ez da garrantzitsua, baina zaindu behar. Alferrik ez gastatu, behintzat. Ez dugunean bakarrik da garrantzitsua”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea, 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil

ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar

MAKETAZIOA
Inaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga

KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martín Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91

ISSN
1130-6599

TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 1**
MOZOS, San Pedro 4..... 943 76 12 15
- ZAPATUA, 2**
CAMACHO, Oxirondo 4..... 943 76 11 74
- DOMEKA, 3**
CAMACHO, Oxirondo 4..... 943 76 11 74
- ASTELEHENA, 4**
PUY, Barrenkale 25..... 943 76 16 87
- MARTITZENA, 5**
GUALLAR, San Antonio 5..... 943 76 11 05
- EGUAZTENA, 6**
ESTELLA, Matxiategi 5..... 943 76 19 63
- EGUENA, 7**
MOZOS, San Pedro 4..... 943 76 12 15

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda)..... 943 76 24 40
- Bergarako udaltzaingoa..... 943 77 91 06
- Antzuolako udaltzaingoa..... 943 76 62 46
- Ertzaintza..... 943 76 53 40
- Osasun etxea..... 943 76 24 40
- Asepeyo..... 943 76 16 43
- Pakea..... 943 76 13 49
- Angiozarko medikua..... 943 78 90 27
- Antzuolako medikua..... 943 76 62 23
- Odol emaleak..... 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak..... 943 76 51 06
- GARRAIOAK**
- Taxiak..... 943 76 19 50
- UDALA**
- Bergarako Udaletxea..... 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea..... 943 76 62 46
- Udal Artxiboa..... 943 77 91 32
- Igerilekuak..... 943 76 20 51
- Kultura etxea..... 943 77 91 58
- Liburutegia..... 943 77 91 62
- Kirolegia..... 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza..... 943 76 13 68
- BESTELAKOAK**
- Epaitegia..... 943 76 14 92
- Erregistroa..... 943 76 13 15
- Jardun..... 943 76 36 61
- Idolaz..... 943 76 65 08
- Erretiratuaren etxea, Bergara..... 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuaren elk..... 943 76 62 71
- Postetxea..... 943 76 26 85
- Bedelkar..... 943 76 04 68
- Akulu AEK..... 943 76 05 18
- Udal euskaltegia..... 943 76 44 53
- Bergarako notariotza..... 943 76 10 73

MEZAK

- Santa Marina** Domekak: 10:30.
Domekak: 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.
Lanegunak: 19:15.
- San Pedro** Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.
- Sierbak** Lanegunak: 19:30.
- Osintxu** Domekak: 12:30.
Zapatuak: 19:00.
- Elosu** Domekak: 10:30.
- Ubera** Domekak: 10:30.
- San Juan** Domekak: 11:00.
- Elorregi**
- URTE-MEZAK**
- Santa Marina** Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.
- San Pedro** Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

OHARRAK

ODOL-EMATEA
Odol emaleen elkarteak jakinarazi duenez, hurrengo odol-ematea otsailaren 13an egingo dute. Beti bezala, Seminarioko lokalean egingo dute, 18:30etik aurrera. Odol emaleek eskerrak eman nahi dizkiete azken asteotan laguntza eman duten guztiei.

HELDUEN HEZIKETA ESKOLA
Bergarako Helduen Heziketa Eskolak 2001-2002 ikasturako bigarren lauhilabeterako matrikula epea zabalik dagoela jakinarazi nahi du. Argibideak 943 76 44 52 telefono zenbakian edo Barrenkale 33ko bigarren pisuan jaso daitezke.

LOKATZAREN OHARRA
Lokatza Ziklismo Eskolak aurtengo federatuaren lizentziak berritzeari ekin dio. Interesatuak Lokatzak San Martin plazan duen bulegora jo dezakete, eguenetan 19:30etik aurrera. Argibideak 619 73 95 07 (Mikel Larrañaga) telefono zenbakian.

MARIAREN LAGUNDIAKO IKASLEEN ZOZKETA
Mariaren Lagundia Ikasturako DBH 4. mailako ikasleek ikas-bidaiaren alde egindako zozketan 2.346 zenbakia izan da saritua.

JARDUNEN AGENDA

JARDUERAK GAZTETXOENTZAT
Gasteizera patinatzerara joateko irteera egingo dute zapatuan, 15:00etan autobus geltokitik. Domekan, 16:00etan bilduko dira Kartzelan, San Blasera joateko.

NUTRIZIO IKASTAROA
Nutrizio ikastaroa izango da otsailaren 18tik aurrera. Argibideak: 943 76 08 19.


URBANOEN ORDUTEGIA

- San Lorentzo / San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegarieta / Olabarrenetik irteerak**
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN

Pol-Polen urrezko ezteietako ospakizunak


Pol-Pol elkartearen sorreraren 50. urteurrena ospatzeko ekitaldiak aurkeztu zituzten 1992ko otsailan. Besteak beste, Jon Lazkano, Damaso Gallastegi eta Luis Ignacio Goenaga bergararrek, Kike De Pablo bilbotarrarekin batera, Nepaleko Daulaghiri mendira espedizioa egin zuten.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Txatxurra"

Hagina.
-Txatxurtxuak miñ emuten dotsue ezta, biotza?
-Ointxe dauzka txatxurrak urtetzen.



GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA Egubakoitza, 25	1°C
MAXIMOA Astelehena, 20	20°C
ASTEKO EURIA (l/m²)	1,2 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 23	16°C	9°C	1,2 l/m ²
Eguena, 24	11°C	4°C	- l/m ²
Egubakoitza, 25	16°C	1°C	- l/m ²
Zapatua, 26	16°C	4°C	- l/m ²
Domeka, 27	19°C	14°C	- l/m ²
Astelehena, 28	20°C	3°C	- l/m ²
Martitzena, 29	17°C	1°C	- l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKO FILMAK

'SPY GAME'
ZUZENDARIA: TONY SCOTT. AKTOREAK: ROBERT REDFORD, BRAD PITT, CATHERINE MCCORMACK.

HARIA. Nathan Muir (Robert Redford) CIAko agentea erretiratze- ar dagonean, berarekin lanean ibilitako Bishop gaztea (Brad Pitt) atzerrian bahitu dute. Hura salbatzea izango da bere azken lana.

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Egubakoitzean 22:30ean, zapatuan 19:30ean eta 22:30ean, domekan 19:30ean eta 22:15ean, eta astelehenean 19:30ean.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

'ATLANTIS'
ZUZENDARIA: GARY TROUSDALE ETA KIRK WISE.

HARIA. Ederra eta piztia eta Notre Dameko konkorduna marrazki bizidunetako filmen arduradunek, nagusiki gaztettoendako eginiko filma. Milo Thatch izeneko gazteak, bere aitona aspaldi hasitako lana bukatu nahi izango du, Atlantida topatzea alegia.

TOKIA ETA ORDUA. Novedades aretoan. Zapatuan eta domekan, 17:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

'INTACTO'
ZUZENDARIA: JUAN CARLOS FRESNADILLO. AKTOREAK: LEONARDO SBARAGLIA, EUSEBIO PONCELA, MAX VON SYDOW.

HARIA. Federico-k (Eusebio Poncela) eta Sam-ek (Max Von Sydow) zortea daukate: Sam bizi- rik atera zen Bigarren Mundu Gerrako holokaustotik, eta Federico lurrikara batetik. Federico Sam-ek duen kasinora joango da eta bien arteko lehia piztuko da.

TOKIA ETA ORDUA. Novedades aretoan. Eguenean, otsailak 7, 20:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

ETXEPARE-BILINTX LIBRYDENDA



Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12. 943 76 40 50 BERGARA

INGURUMENA/ Mendilerroan dauden aztarna megalitikoetan eragingo lukeen kaltea da parke eolikoa han ez egiteko arrazoi nagusietakoa

Eusko Jaurlaritzak atzera bota du Irukurutzeta-Karakateko parke eolikoa

MONIKA BELASTEGI

Eusko Jaurlaritzak atzera egin du Irukurutzeta-Karakate mendilerroan parke eolikoa egiteko asmoarekin. Hau da, Lurralde Plan Sektorialek kanpo utzi du kokapen hori. Arrazoi nagusia da han dauden aztarna megalitikoetan eragingo lukeen kaltea.

Eusko Jaurlaritzako Industria, Komertzio eta Turismo Sailak bertan behera utzi du Irukurutzeta-Karakate mendilerroan parke eolikoa kokatzeko zuen asmoa.

Eusko Jaurlaritzako sail horrek erabaki hori hartzeko arrazoiak da mendilerroan dauden elementu megalitikoetan eragin kaltegarria izango lukeela: horietako hamar elementutan eragin zuzena izango luke, hau da, desagertu egingo lirake, eta beste hainbatetan zeharka eragingo luke.

Hori guztia kontuan izanda, Eusko Jaurlaritzako Kultura Departamentua ere aurka izan du Industria, Komertzio eta Turismo Sailak.

Kultura Departamentuak 2000ko maiatzean Multzo Monumental kategoria emateko prozedurari hasiera eman zion. Hala ere, hori ez ei zen eragozpen Lurralde Plan Sektorialean Irukurutzeta-Karakate mendilerroa ere jasota egoteko. Dena dela, bi departamentuetako ordezkariak izandako batzarren ondoren, eta akordio batera ezin iritsirik, Irukurutzeta parke eolikoa II. Taldean sartu zuten. II. Taldean egoiteak esan nahi du gune horretan bakarrik jarri ahal izango direla parke eolikoak, baldin eta aurrez ikusitako helburu energetikoak lortzeko zailtasun objektiboak



Argazkian Irukurutzeta mendiko Aizpuruko Zabala trikuharria ikus daiteke.

daudela egiaztatzen bada.

Bien bitartean, bi departamentuen batzarrak jarraitu egin zuten bi alde asmoak bateragarriak ziren edo ez ikusteko. Hala ere, haize-erroten lerrotzek hainbat elementu megalitikoekin topo egiten duela eta, azkenik, Lurralde Plan Sektorialek kanpo utzi dute Irukurutzeta-Karakateko kokapena.

UDALAREN ALEGAZIOAK

Udalaren protestak 2000ko uztailan hasi ziren, Parke Eolikoei

buruzko Lurralde Plan Sektorialearen aurrerapena udaletara heldu bezain pronto, eta badirudi eraginkorrak izan direla. Behin iradokizunetarako epea zabaldua, Bergarako Udalean lau alegazio jaso zituzten: Ingurumen batzordearena (orduan Batasunaren esku), Kapirixorena, udal museologarena eta Mendia Bizirik taldearena. Guztiak aztertu ondoren, Eusko Jaurlaritzari parke eolikoa egiteko asmoa bertan behera laga zezala eskatzea onartu zuten.

Alegazioek bi alderdi jorrazten zituzten: batetik, megalitoei dagokiena, eta, bestetik, ingurumenarena.

Megalitoak Neolito-Brontze arokoak dira (K.A. 3000-900), eta kalte izugarria egingo lieke. Ingurumenari dagokionez, haize-errotek eragingo luketen inpaktu bisuala oso handia izango litzateke, eta ingurumenean ere eragin nabarmena izango luke: parke eolikoak herriak duen pagadirik ederrenetarikoa eragingo lieke.

Parkeak hamar megalito txikituko lituzke eta beste hainbatetan eragina izango luke

Eusko Jaurlaritzako Kultura Departamentua ere proiektuaren aurka azaldu da

Megalitoak Neolito-Brontze arokoak dira (K.A. 3000-900); garrantzi historiko handia dute

Hasieran ez ziren alegazioak onartu eta Lurralde Plan Sektorialearen lehen onarpenak aurrera egin zuten. Behin betiko onarpenarako alegazio epean berriz aurkeztu zituen Bergarako Udalak alegazioak, eta badirudi kontuan hartu dituztela.

Irukurutzeta-Karakaten aurrez ikusitako parke eolikoak Soraluze, Elgoibarko eta Azkoitiko udaletan ere izan du eragina, Bergarakoaz gain. Hori horrela, alegazioak ere batera aurkeztu izan dituzte.

Goiko Estaziñoko bi eraikin zahar bota egin dituzte

Goiko Estaziñoko bi eraikin bota zituzten martitzen goizean, Udalaren aginduz. Badirudi bi eraikin oso egoera kaskarrean zaudela, baita erortzeko arriskuan egon ere. Hori horrela, Udaltzako eraikinak botatzeko esleipena onartu zuen, aho batez, astelehenean egindako osoko bilkuran. Eta handik ordu batzuetara, hondeatzeko makina batek bi eraikinak bota zituen.

Duela urte batzuk, Debagoienan oraindik ere tren martxan zegoenean, oso erabilera jakina zuten bi eraikinek: bata, geltokiko langileendako sukaldea zen, bestea, komuna. Gaur egun, baina, ez zuten inongo erabilerarik. Utzita zeuden, eta oso egoera txar

rrean. Kontuan izan behar da, gainera, trenbide zaharrean jende ugari ibiltzen dela paseoan, eta edozein arrisku ekiditeko egoki ikusi dute Udal agintariak eraikinak botatzeko. Erabilera duen bakarra bi horien ondoan dagoen beste eraikin bat da, herriko rock taldeek entsegetarako erabiltzen dutena.

Lanak Ingenieria, Construcción, Excavaciones SL enpresak egin ditu, eta aurrekontua 5.019 euro ingurukoa izan da (850.000 pezeta inguru).

OSINTXUKO ZUBIA

Osoko bilkura berean, Osintxun zubi berria noiz eraiki behar duten galdetu zion Jesus Mari

Garitanok Gallastegi alkateari. Alkateak esan zuenez, duela hilabete eta erdi, Soraluze enpresako arduradunekin batzarra izan zuen eta zubia eraikitzeke hitzarmenaren zirriborroa eman zien enpresako ordezkariari. Gallastegik gehitu zuenez, joan den egubakoitzean izan zen berriz ere Soraluze enpresako arduradunekin, eta adostu zuten otsail amaierarako hitzarmenaren zirriborro horren gaineko erantzuna emango dutela.

Gallastegi alkateak adierazi zuen Udalaren asmoa dela zubia 2002an eraikitzen hastea, eta ez duela dirurik ordainduko, aurrez egindako akordioek horrela jasotzen dutelako.



Martitzen goizean bota zituzten Goiko Estaziñoko bi eraikinak.

Eskusarte izena izango dute babes ofizialeko lehen blokeko bi atariak

MONIKA BELASTEGI

San Antonio auzoan, babes ofizialeko etxebizitzaren lehen blokea eraikita, bi ataridun kale berri bat sortu da. Hori horrela izanik, kale berriaren dako izena onartu zuen Udaltzako asteleheneko osoko bilkuran: Eskusarte, hain zuzen ere.

San Antonio auzoan eraiki dituzten babes ofizialeko etxeak direla eta, kale berri bat sortu da, bi ataridun kale berri bat, zehazki. Hori horrela izanik, kale berri horrendako izena onartu zuen Udaltzako asteleheneko osoko bilkuran, hurreratutako alderdi guztien oniritziarekin: Eskusarte izena, hain zuzen ere.

Izen hori Udaleko Euskara Zerbitzuak proposatu du. Zerbitzu horrek egindako ikerketan jasotzen denez, inguru hartako presa inguruari Eskusarte deitzen zioten lehen, eta oraindik ere hala deitzen diotela frogatu dute, han inguruko hainbat bizilagun galdetu ondoren.

Horrez gain, dokumentazio idatzian ere jasota dago toponimo hori, eta badirudi inguru horretan zegoen baserri baten izena dela. Hori guztia kontuan hartuta, babes ofizialeko lehen etxebizitza multzoko bi atariak Eskusarte kalean egongo dira aurrerantzean.

ARANERREKAKO UR-SAREA

Aranerrekak kalen ur-sarearen egoera kaskararen aurrean, sare hori konpontzeko erabakia eta



Erreka aldera ditu atariak etxe bloke berriak. Horiexek deituko dira Eskusarte.

lan baldintzak zehaztu zituen Udaltzako aurreko astelehenean.

Badirudi ur-sarearen egoera txarra dela eta, hainbat ur-ihesi izaten dela, eta hori ekiditeko, ur-hodia 230 metro aldatzeko erabakia hartu zuten astelehenean. Hodiarekin batera, balbulak, ur-ahokak eta ur-hartuneak ere aldatuko dituzte. Lan horien aurrerantzean 6.700 euro inguruko (1.100.000 pezeta).

Osoko bilkuran aztertutako beste gaietako bat galderen atalean Batasuneko kideek auditorioaren inguruan egindakoa da. Batasuneko kideek gaia zertan den jakin nahi zuten. Victoriano Gallastegi alkateak erantzun zuen 2002ko aurrekontuen zirriborroetan ez dutela diru partidarik aurrez ikusi auditoriorako. Bestalde, gehitu zuen oraingoz gaia mahai gainean dagoela, baina lehenbailehen hasiko direla aztertzen.

San Blas eta Santa Ageda bata bestearen atzetik datozkigu

MONIKA BELASTEGI

Gaur hasi eta datorren martitzen arte, hainbat ospakizun izango ditugu. Batetik, San Blas jaiak ospatuko dituzte izen bereko auzoan. Bestetik, Santa Ageda bezperan hainbat talde arituko da kantuan.

Gaurtik hasi eta datorren martitzen arte, jaiak ospatuko dituzte San Blas auzoan. Gaur, egubakoitza, hasiko dira jaiak, 20:00etan, suziri jaurtiketarekin. Gero, 20:30ean, auzo afaria eta jarraian erromeria izango da Jardun elkarte trikitilariarekin.

Zapatuan, 16:00etan, XIV. San Blas Mus txapelketa egingo dute. Izen ematea 15:30ean hasiko da eta bikote bakoitzak 12 euro ordaindu beharko ditu.

Domekan, San Blas egunean, meza nagusian opilak bedekatu dituzte, 11:00etan. Gero, auzoko elkarteak salda banatuko

dute. 11:45ean, Aranzadi ikastola-Moises Azpiazu dantza taldearen ekitaldia izango da, eta jarraian, Mikel Saralegi harri-jasotzaileak erakustaldia egingo du: 200 kiloko harri angeluzuzena (hiru altxaldi), 250 kiloko harri angeluzuzena (bi altxaldi), 100 kiloko harri biribila (sorbaldak gainean eta lepoaren inguruan) eta 300 kiloko harri angeluzuzena (altxaldi bat). Horren ondoren, aizkolari bikote bat arituko da, eta umeendako kukainak ere izango dira.

Azkenik, jaiak amaitzeko, martitzen, 19:00etan, aspaldiko usadioak agintzen duen moduan, San Blas ermitako ermandadeko kideen bilkura izango da.

SANTA AGEDA BEZPERAN KANTUAN KALERIK KALE

Astelehenean, Santa Ageda bezpera izanik, hainbat talde kantuan arituko dira herriko kale-

tan barrera: batetik, ikastetxeak izango ditugu; eta, bestetik, San Joxepe elkarte kideak eta Alai taldea.

Ikastetxeei dagokienez, Aranzadi ikastolakoak hiru taldetan irtengo dira kantuan. Txikiak 15:15etik aurrera ibiliko dira kale-rik kale eta nagusiagoak, berriz, 18:30etik aurrera. San Martin ikastetxeak ere irtengo dira kantuan. Horiek 15:00etatik aurrera ibiliko dira, hara eta hona, kaleak alaituz. Eta Mariaren Lagundiko neska-mutikoei ere abestuko dute Santa Ageda bezperan. Goizez eta arratsalde jardungo dute, eta lortutako dirua Afrikako Kongoko Errepublikako Butembo herrialdera bidaliko dute, hango umei eta emakumei laguntzeko.

San Joxepe erretiratuen elkarte kideen kasuan, goizetik arituko dira, 10:30etik bazkal ordu arte, eta Alai taldeko kideak, berriz, iluntzean.

LABUR

Anorexia edo bulimia gaixoen senitartekoei laguntzeko zerbitzua Debagoiengan

ACABEK, Euskadiko Anorexia eta Bulimiaren Aurkako Elkarteak, eta Debagoieneko udal nagusietako Gizarte Ongizate zerbitzuek, Bergarakoak barne, gaixo horien familiartekoei laguntzeko zerbitzua jarriko abian. Lantalde horretan parte hartzeko interesa duen edonor Udaleko Gizarte Ongizate Zerbitzuarekin jarri beharko da harremanetan, datorren martitzena baino lehenago.

Lantalde horiek hamabostean behin izango dira, Arrasateko Monterron jauregian. Bi psikologoren laguntzarekin, gaitz horiek jota dauden pertsonak hobeto ulertzen saiatuko dira, eta egoera konkretuetan zelan jokatu behar duten ere bai.

Lehenengo laguntza taldea otsailerako antolatuko asmoa du ACABEK, eta, gauzak ondo badoaz, gaixoei laguntzeko zerbitzuak ere eskaintzen hasiko direla azaldu du Garbiñe Agirre elkarte Gipuzkoako presidentek. Eta, behar izanez gero, egoitza irekiko dute Arrasaten.

Bergarako Batasunak aurkezpen publikoa egingo du gaur, 20:00etan, Artatse elkarte


Begarako Batasunak aurkezpen publikoa egingo du gaur, egubakoitza, 20:00etan, Artatse elkarte. Ekitaldi horretan Herriko Mahaia aurkeztuko dute, ildoen berri emango dute eta funtzionatzeko moldeak azalduko dituzte. Hausnarketarako eta ekarpenetarako tartea ere izango da.

Auto karabana, Aretxabaletan egingo den presoaren aldeko manifestaziora joateko

Bihar, zapatua, Aretxabaletan *Euskal Presoak Euskal Herrira* lelopean egingo den manifestaziora joateko auto karabana irtengo da 18:00etan, Arrano tabernatik. Aretxabaletako manifestazioa 19:00etan izango da, eta Mitarte plazatik abiatuko da.

San Joxepe elkartearekin Iruñeko planetarioa bisitatzera joateko autobusa beteta dago

Beteta dago dagoeneko San Joxepe erretiratuen elkarte Iruñeko planetarioa ikustera joateko antolatutako autobusa. Bisita hori otsailaren 7an izango da, eta, planetarioa ikusteaz gain, hiria bisitatzeko ibilaldia ere izango dute. Lehenik eta behin, hiriaren bisitaldi panoramiko egingo dute, eta, gero, planetarioa ikustera hurreratuko dira.



Itesa Taldearen aurkezpena

Begarako Itesa Talde eratu berriak aurkezpena egin zuen Miguel Altuna institutuan joan den egubakoitzean. Itesa eta Felix Gabilondo lantegien bateratzeak sortu da taldea. Aurkezpen ekitaldia Josu Jon Imaz Industria sailburuak ireki zuen, eta ondorengo azalpenak Itesa Taldeko gerente Alex Barrusok egin zituen.

ELKARRIZKETA

JOSEBA JAUREGI/ODOL EMAILEEN ELKARTEKO PRESIDENTE OHIA

“Odola ematea oso garrantzitsua da, eta ematen duenarentzat ez da ezer”

MONIKA BELASTEGI

Joseba odol emaleen elkarteko lehen presidentea izan zen duela 35 urte. Zapatuan omenaldia egin zioten, baina berak horrelakorik ez zuela merezi aitortu digu; bere esanetan odol emalearen lana odola isilik-isilik ematea baita.

Zelatan otu zitzaizuen odol emaleen elkartea sortzea?

Migel Arizmendik eta deitu ninduten. Odol emaleen elkartea sortzekotan ari zirela eta niri ere ondo iruditu zitzaidan, eta presidente ni izango nintzela erabaki genuen.

Ordurako eurak jendea aurkituta zuten odola emateko, eta gainera, hasteko moduan geunden. Baina jende gehiago bilatzeari ekin genion, eta horretarako propaganda egin genuen, prentsan eta.


Hori guztia duela hogeita hamabost urte izan zen.

Oroitzen duzu noiz eman zenuten lehenengoz?

Lehenengo urtean jendea bilatzen jardun genuen, eta ez genuen odolik eman. Horrez aparte, odol mota bakoitzeko taldeak ere egin beharra zegoen, eta horrekin bukatu eta gero hasi ginen ematen. Nik uste, taldea sortu eta urtea bete aurretik hasi ginela odola ematen.

Zenbat aldiz eman zenuten lehenengo aldi hartan?

Hamabi aldiz. Gaur egun poltsak betetzen diren bezala, garai hartan botilak betetzen ziren. Astean behin egiten genituen ateraldiak, beti hamabi, baina gaur egunekoarekin alderatuz oso ezberdina izaten zen. Ateraldia arratsaldean egiten genuen. Gorde, eta hurrengo eguneko goizeko zazpiak laurden gutxiagotan, San Martin plazako egunkari postura eramaten genituen. Ordu hartan *Diario Vasco*-ko furgoneta heltzen zen, eta hark hartzen zituen odol botilak Donostiara



MONIKA BELASTEGI

“Duela 35 urte sortu genuen elkartea, eta hasieran 12 botila ematen genituen astero-astero”

eramateko. Gaur egun Donostiatik etortzen dira, baina orduan halaxe zen.

Eta poliki-poliki jende gehiago hasi zen odola ematen.

Bai. Batetik, propaganda egiten genuen. Bestetik, guk geuk aurkitzen genituen emaile

“Donostia eta Irunen ondoren Bergara izan da Gipuzkoan odol gehien eman duena”

berriak, eta emaile zirenei ere, hurrengo aldiak beste lagun bat ekartzeko esaten genien. Horrela, taldea handitzen joan zen, eta denbora gutxian lauhun laguneko taldea izatera heldu ginen. **Eta hasierako urte haietan nork egiten zituen odol ateraldiak?**

Dulanto medikuak egiten zituen ateraldiak. Baina ez kontsultan. Joxe Hernandok Fraiskozurin, frontoian, etxe erdi bat utzi zigun ateraldiak egiteko. Han hainbat urte eman genituen. **Zuk zenbat urte eman zenituen elkarteko presidente gisa?**

Zazpiren bat, uste dut. Nire ondoren beste hiru presidente egon dira. Azkena Fernando Idigoras, gaur egun ere elkarteko presidente dena.

Bergararrak ondo portatu izan gara odola emateko orduan beste herri batzuekin alderatuz gero?

Donostia eta Irunen ondoren, Bergara izan da Gipuzkoan odol gehien eman izan duen herria. Beti, gainera. Eibarren aurretik ere bai, nahiz eta biztanle gehiago dituen.

Oraindik ere jarraitzen duzu elkartean?

Odolik ezin dut eman, hirurogeita bost urtetik gorakoek ezin dugulako. Urte horiek betetzearekin batera eman nuen odola azken aldiz. Baina oraindik ere jarraitzen dut laguntzen. Ateraldiak daudenean hantxe izaten naiz ahal dudan guztietan.

Lehenagoko maternitatean ere ematen zenuten odola.

Mizpirualde dagoen tokian, maternitatea zegoen. Behin baino gehiagotan deitu izan zidaten etxera, emakume bat erditzen ari zela arazoak sortu eta odola behar zuelako. Nire mota bereko odola bazen, ni joaten nintzen. Bestela, elkarteko zerrendan begiratu eta bat bidaltzen genuen. Odola ematea oso garrantzitsua da, eta ematen duenarendako ez da ezer.

Guk hasieran urtean behin ematen genuen. Oraindik ezjakintasuna ere bazen gai honen inguruan eta badaezpada horrela egiten genuen. Bestalde, kontrola ez zen oso handia, ia mundu guztiak eman zezakeen odola. Gaur egun kontrol handiagoa dago, eta hobe da horrela.

LABUR

Beste bi saio osasunaren autogestioari buruz

Osasunaren Autogestioan Sakontzeko ikastaroaren barruan beste bi saio egingo dituzte datorren astean. Honako gai hauek landuko dituzte: astelehenean, otsailak 4, *Digestioaren arazoetarako zentzuzko tratamenduak*; eta eguaztenean, otsailak 6, *Pertsona osasuntsuak izateko bidea*. Biak Kultura Etxean izango dira, 19:00etatik aurrera. Udaleko Gizarte Ongizate sailak antolatutako hitzaldiotan nahi duen guztiak har dezake parte aurrez izena eman beharrik gabe, eta saio guztiak doanekoak izango dira.

Bideberriko rock kontzertuak antolatzeke deia

Mendekoste jaietan Bideberri egiten diren rock jaialdiak antolatzeke interesa duten guztiak gonbidatuta daude otsailaren 6an, 18:00etan, Kultura Etxean egingo den bilerara.

Trufaren gaineko hitzaldia, gaur, Pertxa elkartean

Pertxa elkarteak antolatuta, trufaren gaineko hitzaldia egongo da gaur, 19:30etik aurrera elkartean bertan. Felix M. Aguilera Angulok egingo du hitzaldia, eta diapositiba eta bideo irudiekin lagunduko ditu azalpenak. Hitzaldiaren ostean, afaria egingo dute izena emandako guztiek, eta beste gauza batzuen artean, trufaz egindako janariak dastatzeko aukera ere izango dute gaur gaueko afari horretara hurbilduko direnek.

Gaur Pertxan egingo duten ekitaldi hori, elkartearen 25. urteurrena ospatzeko prestatu duten egitarau zabalaren barruan dago.

M
MEMESA
INDUSTRI HORNIDURAK
Tel. 943 71 24 25
BERGARA

Usoa Pub

943 76 38 57
Irala 1. Bergara

BERGARAN
BULEGO BERRIA

BERGARA LEGAZPI
Ibargarai 3. Santikutz 8.
943 76 97 97 943 73 05 25
10 URTEKO
ESPERIENTZIA!

Bergarako Udala
Bergarako Udala lehiaketa-oposizio bidez San Martin de Agirre eskolako garbitzailea.
Izangaien baldintzak:
- Eskola ziurtagiria edo parekoa den titulazio maila izatea.
- Euskera 1. Hizkuntza Eskakizuna ez derrigorrezkoa.
Instantziak aurkezteko epea:
2002ko otsailaren 16ko eguerdiko 13:00ak arte.
Oinarriak Udaletxeko idazkaritzako bulegoetan.
Bergara, 2002ko urtarrilaren 29an.

IKASLEAK, LIBURUAK LAGA ETA EUSKAL TELEBISTAKO PLATORA

Bergara, Antzuola eta Oñatiko HHiko ikasle eta irakasleak Euskal Telebistaren bigarren kateko "Lo que faltaba" saioa ikusten egon ziren joan zen urtarrilaren 15ean. Izan ere, hainbat ikasle telebista gertutik ezagutzeko gogoz zegoen. Opari eta guzti joan ziren; Bergarako erreileno eta tostoiak eraman zituzten. Oso ondo pasatu ei zuten, eta aurkezleekin ere gustura egon ei ziren berriketan. Argazkian, Txetxu eta Yolanda saioko aurkezleekin ikus ditzakegu.





SAN PAULO ETA SAN BIXENTE

Joan zen asteburuan ospatu zituzten San Pauloak Ubaran. Egubakoitz goizean, meza ospatu zuten. Ondoren, salda eta txorizoa jateko aukera izan zuten Jaolatzela elkartean. Gauean, berriz, makailao afaria egin zuten, eta erromeria ere izan zuten afaloste-an. Zapatuan ere izan zuten ospakizunak. Domekan Parteittiko jaien txanda izan zen. Han ere meza ospatu zuten; ondoren, salda hartzeko eta Kataideko sagardoa dastatzeko aukera ere izan zuten.

IKASLEAK PROTAGONISTA SAN JUAN BOSCO EGUNEAN

Joan zen egubakoitzean San Juan Bosco eguna zela eta, hainbat ekitaldi ospatu zituzten Miguel Altuna institutuan. Ipintza institutuan, berriz, Santo Tomas eguna ospatu zuten. Aste osoan hainbat ekitaldi egon ziren Miguel Altuna institutuan. Aste kulturala eta eskolako olinpiadak antolatu zituzten. Aste kulturalaren barruan tailer ugari egon ziren: euskal dantzen tailerra, sukaldaritzakoa, idazlearen tailerra Jasone Osoro idazlearen eskutik, txalaparta tailerra eta abar. Olinpiadetan ere hainbat kirol txapelketa egon ziren: futbola, igeriketa, argazki rallya... Egubakoitz goizean, San Juan Bosco egunez, jokatu zituzten final guztiak. Astea amaitzeko, eta San Juan Bosco eguna ospatzeko, bazkaria egin zuten Tartufo jatetxean ikasle guztiak. Horrenbeste ospakizun eta gero, ikasteko garaia ere iritsi zaie ikasleei!



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

GARRAIOAK ANDUZU TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

IRURAK PINTURAK S.L.

ERA GUZTIETAKO LANAK
MOKETA ETA SINTASOLA
IZTUKU ESPONJATUA

PAPER PINTATUAK
HAREA ZORROTADA
IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32

BERGARARRAK MUNDUAN

LAURA UGALDE

34 URTE / MODA EDITOREA ETA ESTILISTA/ BARTZELONA

“Asko maite dut nire independentzia, eta hiriak aukera hori ematen dit”

AINZANE IRIZAR

Bilbora joan zen, duela 16 urte, Arte Ederrak ikastera, baina urtebete besterik ez zuen egin han. “Handik Bartzelonara joan nintzen Diseinu Moda ikasketak egitera”, diosku Laurak. 19 urte zituen, eta hantxe bizi da ordutik hona.

Ikasketak amaitu zituenean, hainbat lehiaketatar aurkeztu zen diseinatzaile moduan; Alemanian, Europa mailako lehiaketa baten finalera iritsi zen, baita Donostiako beste lehiaketa baten ere. Eta Villagarcia de Arosan, Moda Galicia lehiaketan lehen saria jaso zuen.

“Ikasketak amaitu eta berehala hasi nintzen lanean CYL aldizkarian”, azaldu digu; hantxe dihardu gaur ere. Lanean hasi bezain laster, Gipuzkoako Diputazioak beka eman zion New Yorkera ikastera joateko. Azkenean, baina, hainbat arrazoi izan zirela medio, ez zen joan. Arrazoi garrantzitsuena, beharbada, lanean gustura zebilela: “Esperientzia polita izan zitekeen, baina ez dut ez joan izanaren damurik”, adierazi digu.

Esan bezala, CYL aldizkarian dihardu lanean. Moda



editorea eta arte zuzendaria da. Bestalde, publizitate agenzia baten ere badihardu.

Oso gustura ei dago Bartzelonan: “Kulturaren aldetik, eskaintza izugarria dago: antzerkia, moda, musika... aukera handia dago”, diosku. Bestalde, “asko maite dut inde-

“Kataluniarrak euskaldunok baino lasaiagoak, diplomatikoagoak, dira”

pendentzia eta nire kasa bizi izatea, eta Bartzelonak horretarako aukera ematen dit”, azaldu digu Laurak.

“Kataluniarrak hotzagoak dira, baina lasaiagoak, diplomatikoagoak. Eta hori ikasi beharko genuke eurengandik”, diosku Laurak.

Bestetik, Euskal Herriko kaleko giroa faltan sumatzen du: “Kalera irten, koadrilarekin egon... Horrelakorik ez dago hemen, baina ez daukat inolako kexarik, oso gustura nago”.

MINGAINARITIRAKA



Beatriz Leturia

MIZPILDIKO OGI BANATZAILLIA

Esan leike bizi guztixa daroiala ogixa banatzen. 33 bat urte daroia eta 50 dauzka. Zenbat kilometro egin ete dittu, eta zenbat ogi banatu ete dittu! Eta, zela ez, oso ogizalia da.

Noiztik zabitz ogixa banatzen?

Buenooo! 33 bat urte izango die, ahizpia ezkondu zanian hasi nitzan-eta.

Egunian zenbat kilometro egitten dittuzu?

Ba, ez dakit. Beti jakin nahi izan doten gauza bat da hori: bai kotxian eta bai oinez, zenbat kilometro egitten doten, baiña oraingo, ez dot sekula kontau. Dana dala, gimnasia saio bat moduan hartzen dot horrenbeste ibiltzia.

Ogizalia izango zara, ezta?

Bai, asko gustatzen jat, gaiñera; danakin jaten dot ogixa.

Ze da zure laneko txarrena?

Eurixa egitten dabenian ez da oso lan ona, baiña bestela gustatzen jat nere lana.

Eta onena?

Kalian lan egittia, jentiakin egotia...

Ze zaletasun daukazazu?

Irakurtzia eta lorak zaintzia.

Ze lora gustatzen jatzu?

Ziklamena, geranixuak, krabeliñak..., lora danak gustatzen jat.

Liburu bat?

Ointxe irakurri dot *La canción de Dorothea*, Rosa Regasena, eta asko gustatu jat.

Isabel Allende be asko gustatzen jat.

Poltsikoko telefonorik badaukazu?

Bai, baiña lanerako bakarrik.

Eta internet erabiltzen dozu?

Ez. Ordenatoria lanerako erabiltzen dot, baiña justu-justu moldatzen naiz. Internetek ez nau erakartzen.

Loterixia tokau ezkerro, ze egingo ziñuke?

Familixiari lagundu eta gero, ba, lana laga eta lasai bizi.

AINZANE IRIZAR

NIREBIDAIAHURA / Mila Andueza

HONDURAS / 1986ko abuztuan

Nire anaia Mikel Hondurasen zegoenez misiolari, hara joan nintzen, 1986ko abuztuan, Bergarako eta Arrasateko bi lagunekin. Lehenengo Dominikar Errepublikara joan ginen. Han izan genuen lehendabiziko inpresioa beroa izan zen; izugarria zen, lurrari sua zeriola zirudien. Handik Panamara abiatu ginen, eta bi egun pasatu genituen han. Han, fraideen komentu baten egon ginen; sekulako pobrezia ikusi genuen, oso harrিতuta geratu ginen hango bizimoduarekin.


Azkenean, Tegucigalpara iritsi ginen, Hondurasko hiriburura, eta handik Colomcaguara, han zegoen-eta anaia. Colomcagua Tegucigalpatik 200 bat kilometrorra dagoen herri bat da. Eta herritik bost bat kilometrorra, El Salvador-ko errefuxiatuen esparru baten zegoen nire anaia, misiolari. Hamabi bat mila errefuxiatu bizi ziren han, emakumeak eta umeak gehientsuenak. Anaiaz gain, hainbat gobernu kanpoko erakundetako kideak ere bizi ziren errefuxiatuekin, haiei laguntzen. Gaez, baina, Colomcagua herrira itzuli behar izaten ginen guztiok. Izan ere, Hondurasko poliziak zeharo kontrolatuta zeukan errefuxiatuen esparrua, eta ez ziguten lagatzen gaua han igarotzen. Horren arrazoia zen denetarik egiten zietela poliziek errefuxiatuei; hilketak ere ohikoak ziren garai hartan. Errefuxiatuen gunean sartzen eta irteten ginen bakoitzean kontrol polizial zorrotzak pasatu behar izaten genituen. Hala ere, askoz errespetu handiagoa ziguten guri, errefuxiatuei baino. Bi aste egin genituen han, eta Mexikora joan ginen handik, turismo pixka bat egitera. Hondurasko esperientzia, baina, apartekoa izan zen; gogorra, baina benetan interesgarria eta aberasgarria izan zen.



“Colomcaguan 12.000 errefuxiatu salvadortar zegoen”

“Esperientzia gogorra izan zen, baina era berean, oso aberasgarria”

AINZANE IRIZAR



Errefuxiatu esparruan hainbat tailerretan lan egiten zuten.

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

OILAGORRA
TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA

IKUSBI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irala 5
BERGARA
943 76 53 09

BEHEKO
TABERNA

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tf.: 943 76 55 74

BIDAIAK

Marokon zehar hainbat globo hegaldi egin ditu Xabier Alberdi "Sato" bergararrak

Joan zen urtearen amaieran, beste hiru lagunekin batera, globoan eta lurrorotariko autoan ibili da Marokon hogei egunez

EDU MENDIBIL

Urko Gorostidi pilotua, Erramun Irastorza eskalatailea eta Olatz Arozena mendizalearekin batera, Marokon globo hegaldiak egin zituen Xabier Alberdi "Sato" bergararrak joan zen abenduan. "Sato" liluratuta itzuli da han izandako esperientziarekin.

Urko Gorostidi billabonatarrek aspalditik zeukan Marokon globo hegaldiak egiteko asmoa. Lanbidez globo pilotua da, eta duela sei hilabete, Marokon hegaldiak egin ahal izateko bidaia gertatzeari ekin zion. Beharrezko baimenak lortzea ez zen batere erraza gertatu. Kontuak kontu, Urko bera, Erramun Irastorza eskalataile ordiziarra, Olatz Arozena mendizale errenteriarra eta Urko-ren lehengusina, eta Xabier Alberdi "Sato" bergararra, joan zen azaroaren amaieran abiatu ziren Maroko aldera.

"Sato"ren arabera, "bidaia honek aukera eman digu alde batetik Maroko ezagutzeko, bestetik globoan hegaldiak egiteko, eta azkenik, orotariko ibilgailuan leku zoragarriak zeharkatzeko. Globoan ibiltzeke nengoen aurretik, baina orotariko ibilgailuan dezente ibilitakoa naiz, eta Maroko, horrelakoetan ibiltzeko paradisua da". Euskal Herrikerrepeidez joan ziren espediziokideak, eta han bi lagun globoan ibiltzen ziren bitartean, beste biek orotariko ibilgailuan jarraitzen zieten.

HEGALDIK MAROKOKO ATLASEAN

Xauenen, Urkorekin elkartu ondoren, Casablancara jo zuten globoarendako gasa erostera. Globoan ibiltzeko, esan bezala, baimena izatea ezinbestekoa da, aeronautika lege batzuen menpe dagoelako. Hasieran baimenik gabe egin zituzten hegaldiak Todran, Atlas erdi inguruan hain zuzen. "Sato"ren hitzetan, "globo lotuta genuela, globo *kautiboa* deritzona egin genuen, globoaren funtzionamendua ezagutzeko batez ere. Globo zabaldu orduko jendez inguraturik ginen. Hangoekin izandako hartu-eman ere guztiz aberasgarria izan da".

Guztira, orubete inguruko 10 bat hegaldi egin zituzten Todran, Mersougan (basamor-



XABIER ALBERDI

Argazkian, bidaian parte hartu duten lau lagunak, Marokon. Globoak, puztuta, 25 metroko altura zeukan.

tuan) eta Oarazate eta Todra artean dagoen Dadeseko Hartzartean. Gehienetan 200 metroko altueran ibili baziren, pare

bat aldiz 1.200 metrora igo ziren. "Marokoko paisaia harrigarria bada, airez oraindik gehiago harritzen zaitu. Dunetan egon

barik nengoen, eta izugarria izan da" diosku "Sato"k.

Abenduaren 26an itzuli ziren Afrikatik eta "Sato"k eta Olatze-

ek grabatutakoarekin (zazpi bat ordu) eta bestelako materialarekin, telebistarako dokumentala egiteko asmoa daukate.

Hamar hegaldi egin dituzte Atlas erdi inguruan eta Marokoko basamortuan

"Sato"k grabatutako irudiekin telebistarako dokumentala egin nahi dute

Urko Gorostidi globo pilotuarekin batera beste hiru lagun izan ziren Marokoko espedizioan

"Bailarak eta mendiak ikusteko globoa zoragarria da"



Xabier Alberdi "Sato".

"Sato" eta bere lagunak Marokora heldutakoan Ramadanean ziren hango musulmanak. Ramadanak hil berritik hil berrira irauten du, eta erabat aldatzen du marokoarren bizimodua: "Eguzkia sortzen denetik gorde arte ezin dute jan ezta edan ere, eta sexu harremanak izatea ere debekatzen die erlijioak. Maroko berez nahiko kaotikoa bada ere, Ramadan garaian are eta gehiago. Iluntzean marokoarrekin elkartzen ginen, eta tea hartuaz berbetan egoten ginen beraiekin", dio "Sato"k. Hango errepedeetan ibiltzeko lurrorotarikoa ezinbestekoa da, pistak nagusi direlako, batez ere Atlas inguruko herrietan. Guztira, 5.000 kilometro inguru egin dituzte azaroaren 26tik abenduaren 16ra bitartean. Material piloia

eraman zuten hemendik, tartean globoa eta ibilgailua elkar komunikatuta egoteko tresnak: "Globoan ibiltzerako orduan haizeak agintzen du, eta ez dakizu zehatz mehatz non lurreratuko zaren. Batzuetan nekeza gertatu zitzaigun globoa lurreratutako tokira lurrorotarikoa eramatea, baina ondo moldatu gara eta sekulako esperientzia izan da guztiontzat". Esan bezala, "Sato" lehenbiziko aldiz ibili da globoan, non eta Marokon: "Globo uste baino seguruagoa da, eta bailarak eta mendiak ikusteko ezin aproposagoa. Balkoi mugikor bat balitz moduan, sekulako bistak ikusteko aukera izan dugu. Handik goitik ikusten dena zoragarria da. Hori bai, lurra hartzean, kontuz ibili behar da, sustorik ez izateko".

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

EMAITZAK

A MULTZOA

Amilotx-Agirrebeña	3-3
Torrekua-Eri	0-18
Kanpazar-A Ze Flaxa	4-4
Bar Ganbara-Bar Ugarte	0-7
Eri-Kanpazar	8-1
A Ze Flaxa-Amilotx	3-0
Mongatxurak-Torrekua	11-4
Bicip. Igartua-Bar Ganbara	7-8
Bar Ugarte-Komando Piperrak	8-3

B MULTZOA

Vacalouras-Artekale	2-3
---------------------	-----

C MULTZOA

Ortzi-Bayer	4-7
Pagomendi-Patxaran	6-2
Artusamak-Errotagain	3-5
Dedo Pafarru-Argandolas	1-2

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. Mongatxurak	36	16
2. Bar Ugarte	34	15
3. A Ze Flaxa	34	15
4. Eri	28	16
5. Agirrebeña jatetxea	24	15
6. Kanpazar	20	16
7. Torrekua	18	16
8. Komando Piperrak	17	16
9. Bar Ganbara	10	14
10. Amilotx	5	15
11. Biciprecisión Igartua	4	14

B MULTZOA

	P	J
1. Bar Bedarreta	37	13
2. Bar Canalejas	26	13
3. Bar Aterpe	24	13
4. THT	20	13
5. Irubide	19	13
6. Vacalouras	19	14
7. Amoskibar	12	12
8. Artekale pizzeria	12	14
9. Txipiron	11	13
10. Etengabe	-3	12

C MULTZOA

	P	J
1. Errotagain	36	12
2. Artusamak	25	12
3. Bayer	24	13
4. Dedo Pafarru	22	13
5. Argandolas	22	13
6. Pagomendi	18	12
7. Ortzi	10	13
8. Patxaran	6	12
9. Timofonika Team	3	12
10. Bildurbarek	0	0

PARTIDUAK

ZAPATUAN, KANPOAN

17:00: Kanpazar-Amilotx. A Ze Flaxa
18:00: Bicip. Igartua-A Ze Flaxa. Amoskibar
19:00: Amoskibar-Etengabe. Bicip. Igartua

DOMEKAN, BARRUAN

9:30: Bar Aterpe-Txipiron. Amilotx
10:30: Amilotx-Bicip. Igartua. Bar Aterpe
16:00: Etengabe-Bar Canalejas. Amoskibar
17:00: THT-Amoskibar. K. Piperrak
18:00: A Ze Flaxa-K. Piperrak. Torrekua
19:00: Torrekua-Bar Ugarte. Agirrebeña
20:00: Agirrebeña-Bar Ganbara. Bar Ugarte

DOMEKAN, KANPOAN

10:30: Bar Bedarreta-Irubide. Txipiron
--

ARGI IBILI!

ZAPATUKO PARTIDUAK KANPOAN

Labegaraietako Kirolegian jokatuko den gimnasia txapelketa dela eta, zapatuko futbito partiduak kanpoko kantxan izango dira. Zapatu arratsaldean hiru partidu jokatuko dira 17:00etatik aurrera. Teorian behintzat, Kanpazar, A Ze Flaxa eta Amoskibar izango ditugu faboritoak aipatutako partiduetan.

AZKEN JARDUNALDIAN ZIGORRIK EZ

Antolatzaileek epaileengan eta aurkariengan errespetua izatea eskatzen diete jokalariei behin eta berriz. Inolako zigorrak ez izateko, modu txarrak eta protestak alde batera uztea izaten da onena. Azken jardunaldian behintzat ez zuen inork zigorrak jaso eta hori ere azpimarratzekoa da.

GORA ETA BEHERA

BAR UGARTE ETA AMILOTX

Bar Ugartek zapatuan eta domekan jokatutako partiduak irabazi zituen, Bar Ganbara eta Komando Piperrak taldeen aurka hurrenez hurren. Amilotx taldeak, bestalde, ustekabean berdindu zuen Agirrebeñaren aurka (3-3).

TORREKUA ETA PATXARAN

Torrekua bi partidu galdu zituen astebukaeran, Eriren aurka (0-18) eta Mongatxurak A multzoko liderraren kontra hain zuzen (4-11). Patxaranek, berriz, Pagomendiren aurka galdu zue (2-6) eta azkenurreko tokian dago.

GAINBEGIRADA

FUTBOLA

Bergara-Urola preferente mailako futbol partidua zapatuan Agorrosinen

Preferente mailako Bergara futbol taldeak Urola taldea izango du bisitari zapatuan Agorrosinen, 16:00etan. Juanina Garaik zuzentzen duen taldeak bana egin zuen domekan Mutrikun, eta sailkapenean hamaikagarren dago, 32 punturekin.

TENISA

Tenis Txapelketa, Labegaraietako kiroldegian, otsailaren 16tik apirilaren 28ra

Tenis Txapelketa jokatuko da Bergaran otsailaren 16tik apirilaren 28ra. Txapelketa Debagoieneko zirkuiturako puntuagarria izango da. Izenematea otsailaren 13ra arte izango da zabalik. Argibideak Udaleko Kirol Zerbitzuan, 943 77 91 67 telefono zenbakian.

GIMNASIA

Gipuzkoako gimnasia erritmiko txapelketa zapatuan kiroldegian

Zapatuan Gipuzkoako gimnasia erritmiko txapelketako lehen kanporaketa jokatuko da Kirolegian, 10:30etik aurrera. Alebin, infantil, kadete eta gazte mailako banakako probak izango dira. Irati Arteaga eta Sarai Gallego bergararrak infantil mailan arituko dira.

PILOTA

Bergara-Olalde norgehiagoka martitzenean Udal Pilotalekuan, Debarroko Txapelketan

Debarroko Txapelketaren barruan, Bergara KEko pilotariak Antzuolako Olalde taldearen aurka jokatuko dute martitzenean, hilaren 5ean, 19:30etan, Udal Pilotalekuan. Kadete eta senior mailako partiduak izango dira, antzuolarrek gazte mailako bikoterik ez dutelako.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Urola
Preferente maila. Zapata. 16:00. Agorrosin.
Bergara-Orioko
Lehen erregionala. Zapata. 18:00. Ipintza.
Bergara-Urola
Neskak.Domeka. 10:30. Ipintza.
Bergara-Billabona
Lehen mailako gazteak. Domeka. 12:00. Ipintza.

ESKUBALOIA

Bergara-Ite Hondarribia
Kadete mutilak. Zapata. 17:00. Kirolegia.
Bergara-Urola
Gazte mutilak. Domeka. 12:15. Kirolegia.

SASKIBALOIA

Bergara-Alde Zaharra
Senior mutilak. Zapata. 19:15. Kirolegia.
Bergara-Zarautz
Gazte mutilak. Domeka. 12:15. Mariaren Lagundia.

PILOTA

Debarroko Txapelketa
Bergara-Olalde
Martitzena. 19:30. Udal Pilotalekua.

EMAITZAK

FUTBOLA

Mutriku 1 Bergara 1 (Preferente maila)
Amaiak Bat 2 Bergara 0 (Lehen erregionala)
Ilintxa 2 Bergara 1 (Neskak)
Bergara 4 Ordizia 1 (Ohorezko m., gazteak)
Union Txiki 4 Bergara 2 (Lehen m. gazteak)
Bergara 1 Zumaiako 1 (Ohor. m. kadeteak)
Bergara 0 Beasain 3 (Bigarren m. kadeteak)
Bergara 1 Aloña Mendi 2 (Infantilak)

ESKUBALOIA

Bergara 25 Arrasate 18 (Senior mutilak)
Legazpia 19 Bergara 20 (Gazte mutilak)
Leizaran 10 Bergara 26 (Kadete mutilak)

SASKIBALOIA

Elurte 57 Bergara 68 (Senior mutilak)
St. Tomas Lizeoa 76 Bergara 37 (Kadete mutilak)

PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa
Bergara II 18 Elgoibar 5 (Infantilak)
Billabona 5 Bergara I 18 (Infantilak)
Udaberriko Txapelketa
Bergara 8 Añorga 22 (Lehen mailako kadeteak)
Bergara 9 Aretxabaleta 22 (Gazteak)
Bergara 22 Lazkao 21 (Bigarren mailako senior.)
Bergara 22 Deba 1 (Lehen mailako seniorrak)

JOKOZKANPO

Jon Andueza

FUTBOLARIA

Realeko gazte taldeetan eta Bergaran jokatu eta gero, bigarren denboraldia egiten ari da Aurrera Vitoria taldean, 3. mailan.

Zer moduz zabiltza Gasteiz aldean?

Ondo. Iaz baino hobeto gabiltza ligan, eta ni ere gusturago nabil, taldekideak gehiago ezagutzen ditudalako. Inaki Ocenda entrenatzailearen konfiantza daukat oraingo, eta jokatzen ari naiz.

2. B mailako taldera igotzeko aukerarik bai?

Joan den urteko denboraldian, bederatzi partidu jokatutako nituen 2. B mailako taldearekin, baina kanpoko jokalar asko fitxatzen dituzte eta lehia handia dago. Aurten ere, aurrendenboraldia 2.B mailako taldearekin egin nuen, baina 3. mailakoan ari naiz. Ez jokatzea baino areago, nahiago dut 3. mailan aritzea.

Domekan lider izan den Lemona taldea hartuko duzue etxean.

Azken hiru partiduak galdu dituzte eta orain bigarren dira sailkapenean. Lidertza berreskuratzeko gogoz etorriko dira Gasteizera, eta ez da partidu erraza izango. Gu zortzigarren postuan gaude eta gora egiteko beharrezkoa dugu garaipena.



Biko
BOKATEGIA
Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerra.
Tf. 943 76 71 19

EDARIA DOAN

ZURE OGITARTEKOA ESKATZEAN, ERAKUTSI TXARTEL HAU ETA EDARIA DOAN EMANGO DIZUGU!

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

KORTA-ZAR
Txokolategia

Pintxo eta ogitartekoak
Etxeko ogia

ENKARGUAK HARTZEN DIRA

Barrenkalea 16. Tel.: 943 76 20 62

ELKARRIZKETA

FELIX IDIGORAS/ARGAZKILARI AFIZIONATUA

“Nahiago ditut erreportajeak estudioko argazkiak baino, haatik zailagoak dira”

MONIKA BELASTEGI

Felix Idigorasek Kubari buruzko argazki erakusketa du Gure Ametsa elkartearen. Bere lehen erakusketa da. Honela kontatu digu bere aurreneko esperientzia.

Zer ikus daiteke erakusketan?

Kubako biztanleen gaineko erakusketa da. Kubatarrak islatu nahi izan ditut. Niretzat Kuba ez dira publizitatearen bidez jasotzen ditugun hondartza ederrak, Habana Zaharra, baizik. Nire ustez benetako Kuba eta kubatarrak direna islatu nahi izan ditut irudietan. Horretarako erretratuak erabili ditut, kubatarren erretratuak. Gainera, hain dira jende irekia, orokorrean ez dudala arazorik izan erretratu horiek egiteko, nahiz eta bakarren batek ez zidan argazkia egiten utzi.

Kubaren gainean dauden topikoekin apurtzea izan da zure helburua.

Egia da Kubari buruz gauza asko esaten direla, eta horietako batzuk ez dira egia. Argazkiekin, errealitatea nik ikusten dudana bezala erretratatu nahi izan dut. Gero, argazkiak ikusi eta norberak ikusiko du zer pentsatu.

Nola ikusten duzu Kuba?

Nik eraman nuen irudia eta benetan ikusi dudana ez dira ber-



MONIKA BELASTEGI

“Argazkiekin Kubako errealitatea nik ikusten dudana moduan erretratatu nahi izan dut”

“Argazki erreportaje onak egitea zaila da. Baina argazkiak onak badira satisfakzioa handia da”

“Hasi besterik ez naiz egin. Oraindik asko dut ikasteko. Baina zorionez oso irakasle onak ditut”

dinak. Asko poztu nintzen hango errealitatea ikusi nuenean. Han mundu guztiak du jatekoa. Argentina, Txile, Panama... nola dauden ikusi, eta ez dago alderik Kubarekin. Gertatzen dena da Amerikako modeloa jarraitzen dutela, eta, ondorioz, propaganda ona dute. Kubak, aldiz, ez, eta horregatik du propaganda txarra.

Erakusketakoak zure argazkirik onenak ez direla aipatu duzu lehenago.

Erreportaje bat delako. Erreportajeetan ateratzen diren argazkiak momentukoak dira, inprobisatuak, aurrez pentsatu eta prestatu gabeak. Momentuan ikusten duzunari egiten diozu argazkia. Eta horregatik diot ez direla hain onak. Erreportajeak, nire ustez, zailenak dira. Aldiz, estudioko argazkiak ateratzeko orduan, guztia ondo prestatu eta neurtuta dago, eta argazkia hobea izaten da. Dena den, nahiago ditut erreportajeak, eta satisfakzio handiagoa ematen du ondo egindako argazkiez osatuta badago.

Lehenengo erakusketa da?

Bai. Eta oraindik ere asko daukat ikasteko argazki munduan. Zuri-beltzeko argazkiak dira gehien gustatzen zaizkidanak, baina ez dut dominatzen, horretarako eskola asko behar da. Zorionez, baina, lagunaren artean irakasle oso onak ditut.

Mario Duellaren organo kontzertua San Pedro elizan

MONIKA BELASTEGI

Mario Duella organo jotzaile italiarrak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza 20:00etan San Pedro parrokian.

Milango G. Verdi Kontserbatorioan egin zituen musika ikasketak, eta hainbat diploma esku-

ratu zituen: musika koralean, abesbatzen zuzendaritzan, organoan eta organorako konposizioan hain zuzen ere.

Hainbat espezializazio ikastarotan parte hartu du F. Tagliavini, M. Chapuis, M. Torrent, A. Heiller eta V. Lukasekin, besteak beste.

Kontzertu ugari eskaini ditu Europa osoan, Estatu Batuetan eta Japonian. Horrez gain, hainbat disko ere grabatu ditu, eta irrati eta telebistarako hainbat saiotan parte hartu ere. Gaur egun Torinoko RAIren Orkestra Sinfonikoarekin egiten du lan, eta baita ganbera-orkestra batzue-

kin ere, batetik, organo jotzaile gisa, eta bestetik, klabezin jotzaile gisa.

Organo jotzaile italiarrak zapi lan eskainiko ditu gaur iluntzean, San Pedro parrokiako organoaren laguntzarekin egingo duen emanaldian. Honako hauek: Mendelssohn-en *Sonata II do*

minorrean, 65 op.; Callaerts-en *Pastorala, 20 op. 1. zkia, Meditazioa, 20 op. 3. zkia* eta *Martxa solemnea, 20 op. 3. zkia*; Capocciaren *Allegretto*; Vierne-ren *4. Sinfoniaren Minuet sol minorrean, 32 op.*; eta azkenik, Widor-en *4. Sinfoniaren amaiera fa minorrean, 13 op.*



Mirari
JANTZIDENDA

gizon eta emakumeendako arropa

beherapenak!

Martoko 34 Bergara. Tel. 943 76 23 93

**inauterietarako
osagarriak!**

Gracian

Bidekurutzeta 6
Tf: 943 76 10 25





2002ko otsailaren 1a

Gehixago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratutako aldizkaria. 1. alia

HOBETZEKUAK

• **Joko eta jolas ez dira sinonimuak.** Era berian, ez da gauza bera *jolasian egittia* eta *jokatzia*. *Joko* hitzak lehia, irabazi eta galtzia, apustua... adierazten dau. Hortaz, kirolaren gaiñian berba egitterakuan *joko* eta *jokatu* erabiliko dittugu:

- Zeñen kontra *jokatuko* dozue asteburu honetan? (*jolas-egin, jolastu*)
- Jolasian* egingo dogu?
- billi puxkat jolasian eta gero etorri etxera.*



• **Kirol emaitzetan beti "eta".** Emaitzen gaiñian berba egitten dogunian "eta" berbia erabili bihar dogu, nahiz eta emaitzak zenbakixekin adierazterakuan idatzitta agertu ez:



- *Bi eta bat galdu dau Realak.*
(*Bi bat galdu dau Realak.*)

AURKEZPENA

Orain dala bi urte hasi giñan Bergarako ikastetxiak, Udaleko Euskara Zerbitzua eta Eibarko Berritzegunia "Gehixago eta hobeto" programa sortu eta gure ahozko euskaria hobetzeko zenbait proposamen eskaintzen. Ordutik, ume eta gaztetxuen ahotan entzuten diren akatsik ohizkuenak aukeratu eta horretxek lantzeko unidate didaktiko batzuk gertau dittugu. Material hori ikastetxietan lantzen dabe, batez be, baiña beste gune batzuetan be zabaldu izan da eta gurasuoi be bialdu izan dotsuegu zenbait informaziño. Aldizkaritxo hau be orain arteko lana osatzera dator. Oingoz urtian sei bat ale kaleratzeko asmua daukagu. Bertan eskaiñiko dotsuegu gurasuendako zenbait azalpen eta baitta zuen seme-alabekin batera egitteko ariketa eta jokuak be. Ia ba aitatxo-amatxo eta neska-mutillok *apatxi* eta *jolas* egiñaz eta *jokatzu*. gozatu.

TXISTIAK • IGARKIZUNAK

Zela esaten da grekeraz "Realaren gola"?

Zela esaten da errusieraz "Baietz nik irabazi"?

(Kike Amonarriz, Xabier Telleria. Txorakikeriak. Argia)

Erantzunak:
1. Tarteka-marteka
2. Zuk zail nik erre

KOMIKI XA

jaber erostarbe



* Zuzena: hiru eta zero



Bergarako futbol txapelketia

Hona hemen Bergarako auzuen arteko futbol txapelketako domekako emaitzak. Irakurri eta beteko dozu alboko taulia?

- 1.- *Aldaiegiak* erraz irabazi dotsa *Angiozarri*: bost eta bat.
- 2.- *Aritzeta* eta *Elorregik* bina egin dabe.
- 3.- *Azkarruntzek*, ondo jokatu arren, ezin izan dotsa *Goiauzuari* irabazi, bat eta huts galdu dau.
- 4.- *Agirrek* eta *Aranerrekak* partidu ederra jokatu dabe eta launa egin dabe.
- 5.- *Uberak*, ostera, aidian irabazi dotsa *Sanantonabati*: lau eta huts.
- 6.- *Muiñondok* estu hartu dau *Oxintxu*, baiña azkenian osintxuarrak izan dira nagusi: bi eta bat.
- 7.- *Labegaraieta* bururik jaso ezinda dabil eta atzokuan be jipoi ederra emon dotsa *Basalgok*: bost eta huts.
- 8.- Benetan gogorra izan zan *San Juanen* eta *San Antonioren* arteko partidua eta hiruna bukatu zan.
- 9.- Partidu kaxkarra jokatu dabe *Matxiategik* eta *Elosuk* eta bixetako iñor ez da golik sartzeko gauza izan: huts eta huts amaittu dabe.

1. Osintxu - Muiñondo	<input type="text"/>	<input type="text"/>
2. Elorregi - Aritzeta	<input type="text"/>	<input type="text"/>
3. Angiozar - Aldaiegia	<input type="text"/>	<input type="text"/>
4. Azkarruntz - Goiauzoa	<input type="text"/>	<input type="text"/>
5. Agirre - Aranerreka	<input type="text"/>	<input type="text"/>
6. Basalgo - Labegaraieta	<input type="text"/>	<input type="text"/>
7. San Juan - San Antonio	<input type="text"/>	<input type="text"/>
8. Sanantonabat - Ubera	<input type="text"/>	<input type="text"/>
9. Matxiategi - Elosu	<input type="text"/>	<input type="text"/>



MAGIA JOKUAK



Egin nahi doguna: Euro bateko txanpona hartu eta paper baten gaiñian jarriko dogu. Txanponarekin borobil bat marraztuko dogu. Gero guraiza batzuk hartu eta borobil hori ebagiko dogu barrutik, txanponaren tamaiñako zulua egiñaz. Euro bateko txanpona ondo pasauko da.

Baiña 2 euroko txanpona pasauko litzake, papela apurtu barik? Egin aproba. Bi euroko txanpona dezentez haundixagua da eta ezingo da pasa. Ala bai? Ia zer moduzko magua zaren!


Zela lortu leikien:

Papera doblau egingo dogu zuluaren erdi-erdittik. Gero 2 euroko txanpona jarriko dogu 1. irudixan agertzen dan moduan. Gero, orrixari bi albuetatik heldu eta albuak gora jasoko dittugu 2. irudixan agertzen dan moduan. Hola zulua haundittu egingo da eta 2 euroko txanpona errez pasauko da.

Magia joku hau egitteko paper gogor samarra erabili txanponaren pisuaz, berez, apurtu ez dedin.



GURUTZEGRAMIA



Ezkerretik eskumara:

- 4- Anoetan entrenatzen dan futbol taldia
- 5- Lehiaketa bat irabazi dabena
- 8- Lehiakidiak. Jokuetan irabazteko lehiak diharduenak.
- 10- Zenbait kirol-taldea (futbolian, eskubaloian, etab.) area barruan egindako falta batzuegatik jartzen dan zigorra.
- 11- Mundu osoko atletak batzen dituen eta lau urte behin, hiri ezberdinetan, egiten diren jokua.

Goitik behera:

- 1- Hamaseiña pieza dituen bi jokalariren artian, hirurogeita lau laukiko taularen gainean jokatzen dan jokua.
- 2- Kirol-lehiaketa bateko emaitza, kirolari edo taldeak tanto- edo puntu-kopuru bera daukatenean.
- 3- Bosna jokalariko bi talderen artian jokatzen dan kirola, jokalariek nagusia baloia, eskuz, altueran jarritako saskian sartzea da.
- 6- Arabako saskibaloi-taldia.
- 7- Teniserako bezalako zelai baten jokatzen dan kirola. Buztan konikua daukan pelota bat erraketarekin jo eta sare baten gainetik pasatu bestaldeko zelaigunera bialdu behar da.
- 9- Taldea jokatzen diren zenbait kirol-taldea bere taldearen atia defenditzen daben jokalarixak.

GOMENDIXUA

NERE



BEÑAT ABIO
San Martin Ikastetxea, 4. MAILA

AMETSETAKO MUTILA Patxi Zubizarreta

Nik orain dala gutxi Patxi Zubizarretak idatzitako **Ametsetako mutila** ipuiña irakurri neban. Irakurri doten ipuiñik polittena izan da.

Neskatilla bat zan, Jone izenekua. Bere urtebetetzia zan eta ipuin bat, sapaixan pegatzeko izarrak eta kuaderno bat erregalau zotsen.

Asko gustatzen jakon ametsetan egittia eta esnatzen zanian kuadernuan apuntatzen zeban ahaztu baino lehen.

Egun batian amets arraro bat egitten hasi zan eta esnatu egin zan. Orduan paretako izarrak lotzen hasi ziren eta irudixak irtetzen ziren.

Beste egun batian irten jakon mutil bat, ille kiskurra eta oso sudur politta zeukana, eta Jonek pentsau zeban bere ametsetako mutilla zala. Errege batek hiru froga egitteko eskatu zotsan eta frogak egin ondoren ametsetako mutilla jaio zan.

INKESTIA



Zer egitten dozu aisialdixan?



Ion Mujika. 7 urte

Lagunekin jolas egittia gustatzen jat. Patinetiakin ibiltzen gara askotan, Espolotan eta herriko beste toki batzuetan. Ahal badot, egunero irtetzen naiz lagunekin. Etxian nagoenian, telebista ikusten dot.



Amaia Markiegi. 12 urte

Gimnasia erritmikoko taldian nabil, eta astian bi egunian entrenatzen gara bi ordutan, martitzenetan eta egunetan. Lagunekin futbolian be jokatzen dot eta noizian behin zinera juaten gara.



Idoia Larrañaga. 10 urte

Lagunekin futbolian jokatzea eta eurekin berba egittia gustatzen jat gehixen. Neskak eta mutillak elkarrekin ibiltzen gara futbolian. Pintura eta musikako klasietan be banabil: klarinetia jotzen dot.



Aitor Lazkano. 8 urte

Futbolian jokatzea. Ixa egunero ibiltzen naiz lagunekin. Realeko bazkidea naiz eta Anoetako partiduetara juaten naiz. Pelotan be jokatzen dot. Zinera juatia eta irakurtzia be gustatzen jat.



ipuinia

TXEPETXA ETA ARRANUA

Behin batian, joan zan txepetxa arranuagana eta posturia egin zotsan:

— Baietz zu baiño gorago ixo hegaran!

Arranuak, harro, barre egitten zotsan txepetxari.

— Gorago ixo? Hi burutik sano hago? Hegaran zeñek gehixago egin esan nahi dok?

— Bai.

— Eta noiz izango da hori? Noiz inddartuko haiz hi neri aurre egitteko adina?

— Nahi dozunian! Noiz egingo dogu apustua?

— Oraintxe bertan!

Eta arranuak hegaran hasteko gertatzen ziharduan bittartian, txepetxa arranuaren luma artian ezkutatu zan, eta zela arina dan, harek ez zeban sumau be egin.

Arranua hasi zan hegaran eta gora, eta gora,

eta gora...egin zeban. Zihero nekatuta zeguanian, esan zeban:


— Nahikua ixo naiz. Zihero nekatuta nago baiña hemen inguruan ez dago txepetx txolin horren arrastorik. Irabazi dot.

Eta beherutz abixau zan. Baiña goi-goixan zeguala, txepetx txikixa luma artetik irten eta hegaran hasi zan, arranua ixo zana baiño pittin bat gehixago. Arranua behera zijoiala, hala egin zotsan dihar:

— Nik irabazi dot! Nik irabazi dot!

Arranua ikaragarri haserretu zan eta txepetx gaixua hantxe bertan akabatu nahi izan zeban, baiña nekatuta zeguan eta ez zeban harrapatzerik izan.

“Nik irabazi dot! Nik irabazi dot!” kantatzen dau txepetxak ordutik, baiña sasi artian ezkutauta, beti be; arranuaren beldurrez orainddio be.



E, TXO!

KUADRILLATEGI MOZORROTU EGINO DA

Gaingan ditugu inauteriak; datorren asteburuan ospatuko ditugu. Hori dela eta, inauteriei begira, mozorroak prestatzeko tailerra antolatu dute oraingo asterako Kuadrillategikoek. Astero moduan, zapatuan jarri dute hitzordua, 15:30ean, Udal Euskaltegiko egoitzan, Zabalotegin.

'BERGARA EZAGUTZEN' LEHIAKETA, BERTAN BEHERA

Aurtengo ikasturtean ez da Bergara ezagutzen lehiaketarik egingo. Jardunek 14 eta 18 urte bitarteko gazteendako antolatu izan du lehiaketa hori. Aurtengoan, baina, oso talde gutxi eman duenez izena, lehiaketa bertan behera laga beharrean izan dira Jardunekoak.

GAZTETXEA ERE INAUTERIEI BEGIRA

Dagoeneko gaingan ditugu inauteriak, eta gaztetxeok ere hasi dira prestaketa lanetan. Inauterietarako jaialdia antolatzen dihardute; horixe da euren asmoa, gaztetxean inauterietarako jaialdi bat ospatzea. Horretarako, egun hori antolatzeko, batzarra egingo dute domekan, otsailaren 3an, gaztetxean bertan, arratsaldeko zazpitan. Badakizue, hortaz, animatu eta parte hartu!

EHU-RA BISITALDI GIDATUAK

Euskal Herriko Unibertsitatea barrutik ezagutzeko, ikasle eta gurasoendako bisitaldi gidatuak egiten hasi zen joan den astean EHU. Bisitaldi gidatuok egin nahi dituztenak EHUrekin harremanetan jarri beharko dira.

GUREGAIK/ KONTZERTUA GAZTETXEAN

Etsaiak datozkigu zapatuan gaztetxera

AINZANE IRIZAR

Musika eskaintza bikoitzarekin datorkigu asteburu, gaztetxearen eskutik. Bihar, zapatua, 22:30etik aurrera, bi talde arituko dira Bergarako gaztetxean: Etsaiak eta Parasma, hain zuzen ere.

Urtarrilaren 12an eskaintzekoa zen kontzertua gaztetxean Etsaiak taldea, baina otsailaren 2ra atzeratu beharra izan zuten. Horrela, bihar, zapatua, eskainiko digute kontzertu hori, Parasma taldea lagun dutela.

Kaos azken lana aurkeztuko digu Etsaiak talde lekeitiarrak bihar gaueko kontzertuan. Duela urtebete pasatxo argitaratuta-

ko diskoa dugu; 13 abestiz osatutakoa dugu disko hori. Aurreko lanarekin alderatuz, *punk-thrash-hardcore* doinu indartsuak aurkeztuko dizkigu talde lekeitiarrak.

Etsaiak taldearekin batera, Lekeitioko beste talde bat arituko da, Parasma taldea, hain zuzen ere. *Armiarma* esan nahi du Parasmak lekeitiarrez, eta kalean duten disko bakarrean ere horixe ikus dezakegu, *armiarma* bat. Oihuka diskoetxearekin argitaratu zuen diskoa, eta taldearen izen berberarekin. *thrash-metal* estiloko musika eskainiko digute, doinu gogorrak.

Badakizue, hortaz, kontzertu bikoitza zapatu gauean Bergarako gaztetxean.



METAK DISKO ETXEA

Etsaiak talde lekeitiarrak eskainitako kontzertu bat.

LOTSABARIK/ Ainhoa Guridi

"Pazientzia handia daukat, gehiegi, agian"

AINZANE IRIZAR

Arkitektura ikasten ari da Ainhoa. Hemendik hogeitau urtera ikasketak bukatuta izatea espero du. Pazientzia handikoa ei da, gehiegikoa agian, baina ordurako bukatuko ahal ditu ikasketak...!

• Txikitan, zer izan nahi zenuen?

Futbolaria izan nahi nuen, Jose Mari Bakero izan nahi nuen.

• Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zure burua?

Espero dut ordurako Arkitekturako ikasketak amaituta edukitzea, eta lagun batzuekin Arkitektura estudio batean lane-

an aritzea; horrez gain, ezkondu eta umeekin.

• Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriz?

Formala izateko eta jende guttia ondo tratatzeko, inori kalterik egin barik.

• Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.

Donostiara bizi izatera joatea. Bestela, dezente kontrolatzen naute; gainera, familia handia gara, eta edozer eginda ere, etxean enteratzen dira.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Laguntasunari; beti norbait edukitzeari nire aldamenean.

• Zure bertute bat?

Pazientzia; hala ere, batzue-

tan lasaiegia ere banaiz.

• Eta hutsune bat?

Alfer samarra naizela; batez ere, gauzak egiten hastea kostatzen zait.

• Zerk amorratzen zaitu?

Errespeturik ezak.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Begiak.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?


Begiei eta keinuei, batez ere.

• Zer egiten duzu seduzitzeko?

Ezer ere ez; hala ere, zintotasuna eta begirada garrantzitsuak direla uste dut.


• Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?

Ez, ez! Hori ez da kontatzen.



ADINA: 18 urte • **IKASKETAK:** Arkitektura • **ZALETASUNAK:** Futbola ikustea eta mendira joatea • **LIBURU BAT:** Liburu asko hasten naiz irakurtzen, baina ez ditut inoiz bukatzen • **FILM BAT:** 'Matrix' • **MUSIKA TALDEA:** Mikel Urdangarin • **KIROL TALDEA:** Reala

TIRABIRAKA/ Gorka Ortega eta Jon Álvarez



ZAHARREN ETXETIK



Mizpirualden egindako berritze lanek polemika piztu dute egoitzako arduradunen eta hainbat senideren artean.

Mizpirualdeko bizilagunen senideen talde bat, egindako lanengatik kexu

EDU MENDIBIL

Mizpirualde Egoitzan egindako berritze lanen kontra azaldu da hango bizilagunen senideen talde bat. Haien ustez, obrak egiteko orduan ez dira kontuan hartu bizilagunen beharrak.

Mizpirualdeko berritze lanen kontrako idatzia sinatu dute 50 senidek. Idatzi hori Roman Sudupe diputatu nagusiari eta Bergarako Udaleko Ongizate Saileko arduradunari bidali diete. Senideak kexu dira egindako berritze lanengatik. BERRIGARAKO 480. alean jaso genuenez, lan horiek 2000ko urrian hasi zituzten eta egunotan amaitu dituzte, uste-kabeko atzerapena izan da-eta. Mizpirualdeko arduradunen arabera, obrak ezinbestekoak ziren Jaurlearitzaren araudira egokitzeko eta, aldi berean, barne funtzionamenduaren hobekuntzarako. Gregorio Iruretagoiena Mizpirualdeko administratzaileen hitzetan, "zerbitzu hobek

eskaintzea izan da lanen helburu nagusia".

Berritze lanek 162.273 euro inguruko aurrekontua izan dute (27 milioi pezeta), eta Diputazioaren eta Elgetako, Antzuolako eta Bergarako udalen artean ordaindu dituzte. Antolamendu berriaren arabera, beheko solairuan langileen bulegoak kokatu dituzte, eta lehenengo solairuan bizilagunei zuzendutako ia zerbitzu guztiak izango dira, kafetegia barne.

Hain zuzen ere, kafetegiaren kokapena ez zaie batere aproposa iruditu senideei. Haien izenean, zera azaldu digute Euxebe Beainek eta Serafin Quintanak: "Obrak egin baino lehen, jangela, liburutegia eta kafetegia beheko solairuan ziren eta ez dugu logikoa ikusten kafetegia lehenengo solairura eramanez izana. Bizilagunen mugikortasuna murriztea ekarri du horrek. Jangelara joateko igogailua erabili beharra daukate, eta orain, liburutegia ez da horrenbeste erabiltzen. Bestalde, lorategira joateko ere aukera gutxiago daukate orain, sarre-

ra beheko solairuan dagoelako. Horrez guztiaz gain, aisialdirako espazioa murriztu zaie bizilagunei eta hesi arkitektonikoen arazoak hor dirau. Lanen emaitza ikusita, kexatzeko motiborik ez zaigu falta".

HERRITARRENDAKO ZERBITZUA

Mizpirualde egoitzako arduradunen partetik sentikortasuna sumatu du faltan Serafin Quintanak: "Ez dira kontuan hartu bizilagunen beharrak, eta familiarri ere ez digute ezer kontsultatu. Nahi izan dutena egin dute". Quintanaren eta Beainen arabera, alkatearekin ere batu ziren uda ostean, kezka azaltzeko: "Ez dugu Mizpirualdeko arduradunen borondate ona zalanztan jartzen, baina sentikortasun ezberdinez ari gara. Bizilagunak izan behar dira hobekuntzen lehenbiziko onuradunak, eta, gure ustez, kasu honetan ez da bete. Herritarrendako zerbitzua izanik, gauzak ez dira egoki egin. Guztioi eragin digun gaia da, eta gauzak hobeto egiteko aukera zegoen".



Informatika ikastaroa astebete atzeratu da

Informatika ikastaroa astebete atzeratu dute, eta, hortaz, datorren astelehenean, otsailaren 4an, hasiko da. Hamabi lagunek eman dute izena eta eskolak astelehenetan eta eguaztentean izango dira San Joxepeko informatika gelan, 10:30etik 12:30era. Bestalde, iragarritako interneteko sakontze ikastaroa eta argazkien tratamenduari buruzkoa bertan behera geratu dira, jende faltagatik. Excel programari buruzko ikastaroa, berriz, otsailaren 7tik martxoaren 21era bitarteko egunetan emango da, 17:00etatik 19:00etara.

ZAHARREN TXOKOTIK

Jesusa Larrañaga

SAN JOXEPEKO TABERNAKOA

Osintxuko Olanikoa jaiotzez, ezkondu eta gero Bergarara etorri zen bizi izatera, eta urtetan dabil San Joxepeko tabernan lanean. Beste hiru emakume ari dira harekin.

San Joxepeko beteranoetakoa zaitugu.

Bai. Erretiratuen egoitza Seminarioan zegoenean hasi nintzen tabernan lanean. Hogeita bost urte izango dira, beharbada. Erretiratu artean hemen jarraituko dudala uste dut.

Laneko gauza onena eta txarrena?

Lanak daukan gauza txarrena ordutegia da: goizetik gauera jarduten dugu, bazkariak ere ematen ditugulako, eta urtean bi egunean bakarrik ixten dugu: Natibitate egunean eta Urte berri egunean. Bes-



tela, gustura gabiltza. Bezeroekin ere ondo konpontzen gara. Noiz ibiltzen da jende gehien tabernan?

Arratsalde partean, 17:00etatik 19:30era bitartean. Zer moduz euroekin?

Oso ondo moldatu gara. Ez da arazorik egon. Ohiko nahasteak, besterik ez.



UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

MUJIKÀ FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA



gizon & emakume

Barrenkalea 35
BERGARA

OGIZUN

koop. elk.
okindegia

San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

BONO FOTOA

Bergarako zein pintorek egin zuen 1991 urtean Alzazu elkarteko sarreran dagoen murala?



MIGUEL ANGEL ELKOROBEBEZIBAR

BERGARAKO ZUHAITZAK

Sahatsa

Salix sp.

MAITANE ARIZABALETA

Genero honetako espezie ugari aurki ditzakegu, eta espezie hauen hibridazioa askotan gertatzen da. Hori dela eta, bi espezie-
ren arteko ezaugarriak dituzten sahatsak daude.

Normalean, ibai ertzetan bizi den zuhaitza izan arren, zenbait espezie exotiko ornamentaziorako landatzen dira, esate baterako sahats negartia. Bergaran, San Joxepeko egoitzan ikus dezakegu. Sahats negartiak, etxe ondoan landatuz gero, arazoak ekar ditzake: hodiak apurtzea, hormen pitzadura..., espezie honen sustraiak oso azalekoak baitira. Beraz, etxe inguruan landatu nahi izanez gero, kontuan eduki etxearen eta zuhaitza-
ren arteko distantzia.

Sahatsak erabilera anitz ditu. Alde batetik, haga luze eta malguak, zume bezala erabiltzen dituzte otargintzan. Bestetik, azaletik, medikuntzan asko erabiltzen zituzten gaiak ateratzen zituzten (salicina). Gaur egun, horren ordez, bere ahaide sintetikoa den aspirina erabiltzen da. Sahatsak, garrantzi ekologiko nabarmena dute, euren sustraiak ur arazketan parte hartzen baitute.

“Zenbait espezie exotiko ornamentaziorako landatzen dira, sahats negartia adibidez”



E.M.

GALDE DEBALDE

1.

Zein izan zen Bergarako Odol Emaileen Elkarteko lehen presidentea?

- A/ Fernando Idigoras.
- B/ Joseba Jauregi.
- C/ Joxe Hernando.

2.

Laura Ugalde bergararra aldizkari bateko moda editorea eta arte zuzendaria da. Zein?

- A/ Marie Claire.
- B/ CYL.
- C/ Elle.

3.

Hirugarren mailako zein futbol taldean ari da Jon Andueza bergararra?

- A/ Aurrera Vitoria.
- B/ Zestoa.
- C/ Bermeo.



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

LUIS MARI EGAÑA rentzat izan da 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Luis Mariri!

Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: **Ubera** / Galde debalde: **1-C, 2-C, 3-A.**



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Berberana ardo gaztea

Beltza eta gorria

1,55 €

258 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



943 76 20 61
BERGARA



INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA



Irala 3. Tf. 943 76 12 35
Matxiategi 34. Tf. 943 76 23 37
BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09



ELGETA
Peio Palacios
Otsailaren 4an 5 urte.
Urte askotarako!
Eskolako lagunak.



BERGARA
Olatz Sanz
Otsailaren 2an 9 urte.
Urte askotarako!
Aitona-amonak.



BERGARA
Alex Astiazaran
Otsailaren 1ean 3 urte.
Urte askotarako!
Iñigo eta gurasoak.



BERGARA
Miren Carnicero
Otsailaren 6an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Joseba Carnicero
Otsailaren 6an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Aitor Blanco
Urtarrilaren 24an
12 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Mikel Aginagalde
Otsailaren 2an 9 urte.
Zorionak! Gurasoak eta
arriba Nerea.



BERGARA
Ekaitz Irazola
Otsailaren 4an 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Olatz Azkarate
Otsailaren 6an 8 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Alex Piñero
Otsailaren 1ean 3 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



BERGARA
Mireia Arietaleanizbeazkoa
Urtarrilaren 31n 2 urte.
Zorionak! Gurasoak.



BERGARA
Gorka Fernandez
Otsailaren 2an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak; bereziki Unai.



BERGARA
Danel Murgiondo
Otsailaren 6an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.








BERGARA
Jone Murgiondo
Otsailaren 6an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



BERGARA
Jon Cotillas
Urtarrilaren 31n 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Ainhoa Unzurrunzaga
Otsailaren 4an 19 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Amaia.



Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak BERRIGARAREN bidez!
Ekar ezazu bere argazkia* eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

Argazkiak emateko lekuak:


Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenera 17:00etatik 19:00etara
Elgeta: Erosle-Baltxungo

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAn agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12



943 76 48 08.
Zubieta 26
BERGARA

CAMACHO


Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65



iBARRALDE

Administrazio Zerbitzuak S.L.

**Zerga, lan eta kontabilitate zerbitzuak
Finken administrazioa.
ELKARGOKIDE ZENB.: 25.068**

(👉 Laster Ibargarai 30ean zure zerbitzura! 👈)

Tel.: 943 76 52 88. Faxe: 943 76 25 64

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

**LASTER IZANGO GARA ZUREKIN
ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean**

Kiromasajea •
Reflexologia •
Solariuma •



• Hidromasajea
• Algekin eginiko estalkia
• Kirol masajea

Dei ezazu **646 50 00 29** telefonora ordua eskatzeko

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko otsailaren 1a / 99. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea, 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

San Blas eta Santa Ageda jaiak ospatuko ditugu Antzuolan datozen bi asteburuetan

AINTZANE IRIZAR

Otsailaren 3an da San Blas eguna, baina hilaren 2an, zapatuan, ospatuko dute Basalden. Hilaren 5ean, berriz, Santa Ageda eguna dugu. Galartzan, hilaren 9an ospatuko dute, eta sorpresa ederra prestatu dute, gainera: Santa Anaren irudia ekarriko dute.

San Blas eguna otsailaren 3an den arren, bihar, zapatua, ospatuko dute Basalde auzoan. Ohi bezala, jende mordo espero dute mezarako, euren San Blas opil eta guzti. 12:00etan izango da meza, eta hantxe bedeinkatuko dira opilak. Dagoeneko garbitu dute ermita auzokoek. Egurrabei baserrikoak dira aurtengo maizterrak, eta, Matilde Ortuetak esan digunez, dagoeneko prest dute guztia zapaturako. Meza ostean, salda eta txorizoa banatuko dute.

Matildek honakoa azaldu digu: "San Blas opila ogiaren masa berberarekin egiten dute, eta ez dakit zergatik den, baina askoz gozoagoa izaten da". Bestalde, bedeinkatutako ogia urtebetez gorde, eta ez ei da lizuntzen, Matilderen esanetan. Urtebete



Auzolanean aritu dira Basaldekoak San Blas ermita garbitzen; izan ere, apenas erabiltzen da urtean barrena.

pasatu eta gero, ohitura ei zegoen ogi hori uretan beratu eta ganaduari emateko, osasunarendako ona zelakoan. Proba egin beharko dugu.

SANTA AGEDA ESKEA

Santa Anaren irudia ekarriko dute hilaren 9an, zapatuan. Hori izango da aurtengo Santa Agedatako albistea, zalantza barik.

Iaz, abenduan, atzeman zioten Santa Anaren irudia antikuari bati, Bartzelonan, eta gaur egun Donostian dago, elizbarrutiaren museoan. Duela 17 urte lapurtu

Santa Agedaren ospakizun eguna Antzuolan igaroko du Santa Anaren irudiak

zuten Santa Agedako ermitatik, eta datorren otsailaren 9an, zapatuan, itzuliko da lehen aldiz bere tokira, Galartza auzoko Santa Ageda ermitara, hain zuzen ere. Egundak besterik ez du pasatuko han, iluntzean bueltatuko dute eta berriro Donostiara. Balio handiko irudia izanik, segurtasun neurriak hartuko dituzte, ezustekorik gerta ez dadin.

Goizeko 11:30ean hasiko dira Santa Agedako ospakizunak otsailaren 9an, suziri jaurtiketarekin eta kanpai hotsekin. 12:00etan, meza izango da, eta gero, mokadutxo bat hartzeko aukera ere izango dute han batutakoek.

Santa Ageda bezperan, berriz, Santa Ageda eskean irtengo dira herriko kintoak, goizeko sei etan. Antzuolan eta Bergaran arituko dira kantuan.

HERRITARREN HITZA / Iñigo Ramírez de Okariz • Irakaslea

Santa Anaren irudia

Santa Agedako ermitan zegoen Santa Ana azaldu dela adieraziz, makina bat berri izan dugu egunkari, irrati eta telebistan. Ermitan hainbat urtean isilik pasatu bazituen ere, ongi informatutako lapur batzuek bere betiko tokitik atera zuten eta erromes ibili da artelanetan adituak ziren mafien eskuetan Holanda, Italia eta Katalunian zehar, iaz, Bartzelonan antzinako gauzak saltzen diren batean topatu arte.

Kolorez aldatuta iritsi zaigu, izan ere, guk ezagutu dugun kolore txuri eta urdina galdu egin du, eta ustez jatorriz-

ko kolorea duela azaldu da.

Santa Ana irudia hiru irudiz osatuta dago: Santa Ana bera, altzoan alaba Maria, eta beronen altzoan seme Jesus. Irudia XIII-XIV. mendekoa da, erromaniko eta gotiko tartekoa, eta ale gutxi daude hain ederrak munduan.

Hala ere, sortu zaigu herritarroi beste kezka bat: zer egin irudi baliotsu horrekin. Iritzi ezberdinak daude: jatorrizko tokira



"Herriari dagokio irudiarekin zer egin erabakitzea"

itzultzea, eta, horretarako, segurtasunezko neurriak jartzea; Donostiako Elizbarrutiko museoan lagatzea, herriko beste zenbait irudi eta tresnarekin egin den bezala; San Bartolomeko irudiarekin egin zen bezala, parrokiaren jartzea eta Santa Agedarako kopia bat egitea... Iritzi denak dira bidezkoak eta borondate onekoak. Beraz, herritarroi dagokigu esatea zer dugun

nahiago: museo baten laga guk bere seguritatea herrian ziurtatu arte, edota herrira ekarri neurri ziurrak jarrita.

Ezin duguna esan da Santa Anako irudi honen kokapena berdina zaigula, izan ere, Antzuolako herritarren nortasunaren parte ere badelako. Belaunaldiz belaunaldi makina bat gaztek goraiatu izan du kopletan: "... Bihar da Santa Ageda/gaur, berriz, haren bezpera./Santa Agedak bidali zaitu/bere kanpaiak jotzera...". Ea hurrengo Santa Ageda egunerako aukera dugun Santa Ana elkarrekin ikusteko bere betiko tokian.

LABUR

Olaran etxea inauguratuko dute otsailaren 5ean

Datorren martitzenean inauguratuko dute Olaran. Hantxe izango dira Mireia Unamuno alkatea, Victoriano Gallastegi Mankomunitateko presidentea, Diputazioko eta INE-Meko ordezkariak eta herriko enpresetako ordezkariak, besteak beste. Gogoratu dako bulegoak egongo direla eraikinaren goiko bi solairuetan; beheko solairua Udaren esku geratuko da; oraingoz, erakusketa eta hitzaldi areto moduan erabiliko dute.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA/LARRIALDIAK

DYA 943 78 71 57
 Gurutze Gorria 943 76 55 76
 Medikua 943 76 62 23
 Praktikantea 943 76 63 80
 Udaltzaingoa 943 76 62 46
 Ertzaintza 943 76 53 40

UDALA

Udaletxea 943 76 62 46
 Liburutegia 943 76 60 65

BESTELAKOAK

Idolaz 943 78 60 12
 Herri ikastetxea 943 76 62 68
 Jubilatuen elkarte 943 76 62 71
 Abadetxea 943 76 64 16
 Anelkar (Kontxi) 943 78 70 65
 Taxiak:
 Antonio Fernández 669 15 65 40
 Jesus M. Fernández 607 31 85 60

MEZAK

ANTZUOLAKO PARROKIA

Lanegun eta zapatuetan: 19:30
 Domeka eta jaiegunetan: 09:00, 11:30

UZARRAGAKO PARROKIA

Domeka eta jaiegunetan: 10:00

OHARRAK

GAZTETXEKO ERAKUSKETA DELA ETA

Jarri dute Gaztetzeko erakusketa egiteko data eta tokia. Olan etxe berrituan izango da bi asteburuan: otsailaren 15eko asteburuan eta hurrengoan, hain zuzen ere. Erakusketa horretarako materiala eta argazkiak batzen jarraitzen dute arduradunek. Beraz, erakusketarako zerbait izanez gero, honako telefono zenbakira dei dezakezu: 656 77 32 86.

ERRETRATU ZAHARRAK ETA ZORION-AGURRAK

Bergarako edizioko *Irudiak* sailerako Antzuolako erretratu zaharren bat izanez gero, 943 76 03 97 telefono zenbakira dei dezakezue. Zorion-agurrei dagokienez, berriz, Antzuolako liburutegira eraman ditzakezue, astelehenero, arratsaldeko 19:00ak baino lehen; behin argitaratuta, hantxe bertan jaso ditzakezue argazkiok.

BASERRIZBASERRI/ Olamendi



DESKARGAKO BIDEAN Lehen aipamena 1876. urtekoa da. Deskargatik errege bidea pasatzen zen, eta inguru babesgabea zenez, Udalak lurrak eta hainbat laguntza eman zituen XIX. mendean, Deskarga inguruan baserriak egin eta toki seguruagoa izateko. Bi etxebizitzako baserria da, bi etxebizitza ditu bata bestearen kontran. 1794an Antzuolara frantsesak etorri zirenean, inguru honetan hil zituzten Legazpi, Ermua, Eibar eta Ezkioko hainbat lagun. Gaur egun honakoak bizi dira: Jose Mari Ugalde, Josefa Okaranza, Agustin eta Lorenzo Ugalde etxebizitza batean. Bestean, berriz, Eusebia Larrea, Julian Lezeta eta Jesus Mari Lezeta. /AINTZANE IRIZAR /ITURRIA: IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZEN 'ANTZUOLAKO BASERRIAK ETA ERROTAK'

BOTEPRONTOAN/ Igon Zubillaga · DYako soroslea

“Batzutan oso gogorra da sorosle lana; neretako, gogorrena izaten da istripuetan umiak atenditzia”

Zeinek ez du ezagutzen Igon? Zeinek ez du anbulantzia ikusi? Lanbidez errementaria da, baina urte asko daramatza DYako sorosle lanean, boluntario moduan.

Zelatan hasi zinen DYAn? Badira hamazazpi urte hasi nintzala. Orain dala 18 urte zabaldu zan Debagoieneko egoitza Antzuolan, eta hasieratik nenguan taldian; baiña, orduan min hartuta nenguan eta hurrengo urtera arte ez nintzan lanian hasi. Garai hartan karreterako sorospentian hutsune haundixa zeguan; eta bihar hori ikusitta animau nintzan.
Zure lanbidia ez da, baina, hau. Zertan lan egiten duzu?

Errementari lan egiten dot. DYakuok boluntarioak gara danok. Gure lana daukogu, eta gero hemen lan egiten dogu. Momentuoro lokalizauta egoten gara, zeozer pasauta be. Ni, adibidez, gabero lokalizauta egoten naiz.

Lan hau, tarteka, gogorra izango da, ezta?

Ba, bai; neretako gogorrena istripuetan umiak atenditzia izaten da. Behin anbulantzia hil jaten bat, Arrasatera aillegatzen, eta hori barruan daukat... oso gogorra da hori.
Baina bere alde onak ere izango ditu...

Bai, bestela ez giñan hemen egongo; alde batetik, lagun asko egiten dituduzu; beste alde batetik, zauritutakuak atendi-



tziak be poza emuten dau. Istripuetan, batez be, jendiari laguntziak poza emuten dau.
Boletoak saltzen ere aditua izango zara, ezta?
 Bailara guztixan be oso ondo portatzen da jendia. Guretako oso inportantia da jendian laguntzia. Kontuan hartu bihar da, batez be, anbulantziak erosteko bihar izan dogula dirua; holako furgoneta batek hiru bat milloi balio dattu; gero anbulantzia moduan ekipatziak beste hainbeste edo gehixago balio dau.
Aisialdian zer egiten duzun galdetzeko asmoa neukan...
 Ba ikusten dozu, denbora libre gehixena DYAn egiten dot. Hori bai, eguaztenero pilotan jokatzera juten naiz.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
 ANTZUOLA

Igor eta Txomin



Margoak
 orokorrean

ANTZUOLA 609 157 131
 BERGARA 609 150 164

Tomas Gezalaga

Apainketarako eta
 industriarako pinturak

Paper margotuak

Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21
 Tf. eta faxa 943 76 64 07
 Poltsikokoa 616 277 999
 ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR

taberna eta
 gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
 Tf. 943 78 70 32

Tomas Gezalaga

Zoruen kutxilatua
 eta
 barnizaketa

Kalegoi 21
 Tf. eta faxa 943 76 64 07
 Poltsikokoa 616 277 999
 ANTZUOLA / BERGARA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko otsailaren 1a / 85. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea, 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com

Urtea amaitu aurretik industrialdea zabaltzeko lanekin hasi nahi du Udalak

OXEL EROSTARBE

Atzo udal ordezkariak egin zuten osoko bilkuran, Lehenengo Erreka izendatu duten sektorean arau subsidiarioak aldatzeko helburu eta irizpideak zehaztu zituzten. Horrela, 70.000 m² berri zango dituen industrialdea zabaltzeko lehenengo pausoa egin dute.

Industrialdeko bigarren luzapeña Lehenengo Erreka deituko da. Izan ere, Lehenengo Errekaraino helduko da 70.000 metro koadroko azalera izango duen industrialdea.

Atzo gauean, osoko bilkura izan zen Udaletxean, eta zabalpen hori egiteko arau subsidiarioetan egin beharreko aldaketak egitea onartu zuten udal ordezkariak. Lehen nekazari izendatua zegoen lurra, orain industria-urbanizagarri izendatzea onartu zuten, industrialde berria hantxe kokatzeko.

Pagatzako industrialdeak 90.000 metro koadroko azalera dauka, eta 20 enpresa inguru dauka. Guztira, gutxi gorabehera, 400 lagun inguruk daukate lan finkoa.



Pagatzako industrialdearen jarraipena Lehenengo Errekaraino helduko da.

ZENBAIT ENPRESA OSO INTERESATUTA

Udalaren asmoa da lurren jabeekin akordioa egitea lehenbailehen. Izan ere, zenbait enpresak eskatu dute dagoeneko indus-

trialde berriari buruzko informazioa. Interes handia dute euren enpresa Elgetan kokatzeko. Dagoeneko Elgetan kokatuta dauden enpresa batzuk ere zabalpena egi-

teko aukera aztertzen ari dira.

Udalaren nahia da lurren jabeekin akordioa egin eta, horrela, urte bukaera aurretik obrak egin hastea.

70.000 metro koadro izango ditu Lehenengo Errekaraino arte joango den industrialdeak

Industrialde berriari lantegia kokatzeko interesa agertu dute zenbait enpresak dagoeneko

Udalaren nahia da urtea bukatu aurretik industrialde berriko obrekina hastea

HERRITARREN HITZA / Alberto Agirreazaldegia • UZEIko zuzendaria

Gogoeta egiteko garaia

Lehenengoan elgetar batek esan zidan 700 kanpotar lantegiak jarri direla lanean Pagatzako industrialdean. Ni harri eta zur gelditu nintzen. Ez nuen uste hainbeste izan zitezkeenik.

Arro egoteko modukoa dela esango luke nik dakidan batek eta itxura batean ez zaio arrazoirik falta. Baina 700 horietatik zenbat bizi dira Elgetan? Joan den astean Elgetan lan egiten duen eibartar lagun batekin elkartu nintzen eta zergatik bertan ez den bizi galdetxean ea burutik jota ote nengoen esan zidan. Eibartar utzi eta Elgetara joan? Lehen ere nahiko denbora

pasatzen omen du Elgetan.

Herrian lantegiak jarri eta hainbeste lanpostu sortu ondoren bertako biztanleriak gora egingo zuela bazirudien ere ez da halakorik gertatu. Azken urteetan ez du gora egin eta hurrengoetan ere ez dirudi gorakada handirik egingo duen, nahiz eta etxebizitzak bai doazela goraka.

Honek adierazten duena hau da: 700 etorkin dauzkagula



“Gogoeta serio bat egin behar da zer nahi dugun eta nora goazen jakiteko”

Elgetan egunero joan-etorria egiten dutenak. Honi kanpoan lan egiten duten elgetarren kopurua gehituz, herrian ez dakit, baina errepidean bai uzten dela bizitzaren zati ederra, eta bizitza osoa ere bai, batzutan.

Hemen doaz gogoetarako galdera batzuk: Zelako

herria nahi dugu? Zenbat biztanlekoa? Industria ekartzea ondo dago baina hazkundera

mugagabea izan behar da ala eutsitakoa? Industria, nekazaritza, turismoa, erraz erabiltzen diren hitzak dira, baina zein da oreka egokia Elgetarako?

Uste dut gogoeta serio bat egin behar dela zer nahi dugun eta nora joan nahi dugun jakiteko. Azken helburua Elgetaren Plan Estrategikoa egitea litzateke, datozen laubost urtetarako ildo nagusiak markatuko lituzkeena. Gogoeta hau herri mailan egin behar litzateke, ez bakarrik udal-aginte mailan. Eta, besteak beste, gazteek parte hartu behar dute, beraiek osatu behar dutelako herriaren geroa.

LABUR

Telebista ikusteko hitzarmena laster sinatuko du Udalak

GOIBEKOKALERI eta Goienkaria-ri eman beharreko dirulaguntzen gaineko hitzarmena sinatu dute Udalak eta Goienak.

Bestalde, datorren hilean GOITB herri ikusteko pausoz garrantzitsua egingo da. Izan ere, Goiena eta Elgetako Udala telebistaren inguruko akordioa sinatzekotan dira. Goienak egin dion proposamena aztertzen ari da Udala. Zenbait gauza argitu nahi ditu Udalak, otsailean akordioa sinatzeko.

JAIK

Domeka honetan San Blasak ospatuko dira Arantzeta auzuneko baselizan

O.E.

Domekan, otsailak 3, San Blas eguna da. Arantzeta auzunean dagoen San Blaseko baselizan meza izango da eguerdiko 13:00etan. Aste osoan entseguan aritu eta gero, astelehenean, Santa Ageda bezpera, kantura aterako dira eskolako neska-mutikoak.

Domeka honetan, San Blas eguna, jende ugari batuko da, duela hiru urte inguru, auzolanean berri zuten Arantzeta-ziarreko barrenean dagoen San Blaseko baselizaren inguruan.

Iturrikastillo eta Aranzabal baserrien ondoan dagoen San Blas baselizaren berri 1862ko katalogoan eman zuen Insaustik. Neurritz: 9 x 6 metro inguru dauka eta oinplano angeluzuzena da. Nahiko hondatuta dagoen arren, baseliza barruan San Blasen irudia duen oihal pintatua ikus dezakegu.

Domekan, meza izango da

eguerdiko 13:00etan. Bertan sanblasak, ogia, gozokiak eta San Blasetako lepokoa bedeinkatuko dituzte. Meza ondoren luntxa izango da bertara inguratzen direnentzat.

Domekan, Arantzeta auzunean barneratuz mendi buelta egiteko aukera paregabea izango dugu.

SANTA AGEDA KANTUAN

Astelehenean, otsailak 4, Santa Ageda bezpera dela eta kantura irtengo dira eskolako neska-mutikoak.

Eguerdiko 14:30etik aurrera, herriko kaleetan eta gertuen dauden auzoetan arituko dira kantari.

Santa Ageda bezperan ohitura izan da herrian kantura irte-tea. Azken urteetan eskolako haurrak eta gurasoak dira ohitura ez galtzeko ahaleginean dihardutenak.

Aurtengoan ere, batuko duten dirua, inauterietako merienda ordaintzeko erabiliko dute.



Beste urteetan ere jende ugari batu izan da San Blaseko baselizaren inguruan.

KIROLA

Ozkarbiko pilotariak bikain Euskal ligan

O.E.

Aurreko zapatuan, Añorgako taldeari 22 eta 3 irabazi eta gero, beraien taldeko aurreko postuan jarraitzen dute Ozkarbi taldeko pilotariak. Bihar, arratsaldeko 16:30etik aurrera Biarritz Klubeko pilotarien bisita jasoko dute herriko frontoian.

Elgetako pilotariak maila bikaina erakusten ari dira Euskal ligan. Aurreko zapatuan Añorgako taldearen bisita jaso zuten. Eñaut Arantzeta eta Ion Arrietak ez zuten arazo handirik izan par-

tida irabazteko. Zabala eta Mendizabalen aurka 22 eta 3 irabazi zuten eta.

Zapatu honetan Xabier Ube- ra eta Haritz Laskurainek Biarritzeko pilotarien aurka jokatuko dute arratsaldeko 16:30ean.

OZKARBIOEKIN HITZARMENA

Frontoiaren erabilpena dela eta, Elgetako Udala hitzarmena gertatzen ari da Ozkarbi taldekoei aurkezteko.

Kirol teknikariak zirriborro bat gertatuta daukan arren, Udalean ondo aztertu nahi dute, Ozkarbi pilota elkartearekin akordio batera iritsi nahi dute eta.



Aurten ere emaitza onak lortzea espero dute Ozkarbiko pilotariak.

LABUR

Kale antzerkia izango da aurtengo Inauterietan

Datorren barikuan Inauteriak ospatuko dira Elgetan. Arratsaldean neska-mutikoak mozorrotuko dira, hauentzako jolasak eta merienda dau- de antolatuta.

Aurtengo Inauterietako ekitaldi berriena Markelñe antzerki taldeak lehenengo aldiz aurkeztuko duen "KK" antzerki lana izango da. Arratsaldeko 17:15ean plazan izan- go da kale antzerkia.

Gauean nagusien txanda izango da. Denok ondo pasatze- ko Gaztetxeak afaria eta Mal de ojo talde *rumberoaren* kontzertua antolatu ditu. Afarian izena emateko azken eguna otsailaren 4a da.

ZIUR plataforma sortu dute zenbait herritarrek

Autoek herria abiadura bizkorregian igarotzen dutela gauza jakina da. Hau salatu eta hartu beharreko neurriak eztabaidatzeko ZIUR plata- forma sortu dute zenbait herri- tarrek. Aste honetan zinego- tziekin batzekoak ziren eta laster jakinaraziko dute euren asmoa. Gai honi irtenbidea bilatzeko Diputazioko tekni- kariak eta Udaleko ordezkari- rik atzo izan zuten bilera.

Igogailuak jarri eta etxe aurreak konpontzeko bilera

Etxe aurreak konpondu eta igogailuak jartzeko dauden plangintza eta dirulaguntzak azaltzeko, bilera izan zuten udaletxean Salvador kaleko zenbaki ez pareetako ordezkariak, Udalekoek eta DEGA- BEHIBAKO gerenteak. Erai- kinak berritzeaz arduratzen da DEGABEHIBA eta alda- ketak egin nahi dituztenei laguntza emango die.

Elgetarrek ondo amaitu dute ziklo kros denboraldia

Domeka goizean Ispasterren izandako lasterketarekin amaitu zen aurtengo ziklo kros denboraldia.

Ione Muxikak hirugarren egin zuen domekan, eta Aitor Kortazarrek bosgarren.

Mendi bizikleta eta bide- ko denboraldiak udaberria aurretik hasiko dira, eta bi txi- rrindulariek laster hasiko dute prestaketa. Neguan emai- tza bikainak lortu dituzte eta itxaropentsu daude.

JAR EZAZU
HEMEN
ZURE
PUBLIZITATEA

Goibekokale

Aintzane denda



Zugandik gertu,
behar duzun beste

Domingo Iturbe 4, ELGETA
Tel: 943 768297



Elgeta-Piel

Neguko denboraldi berria

Astelehenetik barikura:
17:00-20:00

Zapatuak:
10:00-13:00 eta 17:00-20:00
Domekak: 11:00-13:30

Domingo Iturbe 8, ELGETA
943 76 81 12

GOIO
SARASUA

Igeltserotza lanak

Tei atuak
Sukaldeak
Etxaurreak
Komunak

Otzango Behokoa Baserria
OIKINA
Tel: 943 86 01 56

ERRETRATU ZAHARRA

Antzuolarrak
Gorlako
erromerian

Abuztuko lehendabiziko domekan ospatzen zen Gorlako erromeria. Sekulako erromeria izaten zen, gainera. Inguruko herri guztietatik jende mordoia etortzen zen: Azkoitia, Azpeitia, Bergara, Antzuola, Soraluze, Oñati...

Soinu jotzaileak, dantzak eta taberna izaten ziren nagusi. Hiruzpatalau korro eratzen ziren dantzarako orduan. Gaur egungo txosnen tankerako hamar bat taberna ere jartzen zituzten. Gorlazuri elkartearen aldameneko txabolaren aurrealdean izaten zen erromeria.

Lagun koadrilak bazkari eta guzti joaten ziren oinez Gorlara, egun osoko jaia izaten zen eta.

Batzuk gogoratzen dutenez, lehendabiziko jaia, 1940ko hamarkadan, izugarria izan zen: erromeriaz gain, aizkolariak eta bertsolariak ere aritu ziren; Uztapide eta Basarri aritu ziren bertsoetan.

Honako argazki hau 1955. urtekoa da; horra hor Gorlako jaira egun pasa joandako antzuolar lagun taldea.



Goian, ezkerretik: Felix Agirre, Maria Josefa Igarza, Josefina Lete, Gregorio Madariaga eta Leal txakurra.

Behean, ezkerretik hasita: Fernando Azkarate, Rosario Garitano, Purita Zabalo eta Jose Maria Larrea.

Argazkia: Pili Azkarate

ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!


NOLA ALDATU DIREN GAUZAK

Pilotaleku
estalia 1960.
urtetik

Badira ia 103 urte frontoia eraiki zenetik oraingo toki berean. 1898. urtean, hain zuzen ere, izan zen hori. Ordutik, hainbat aldaketa izan ditu, baina aldaketarik nabarmenena, 1960. urtean izan zuen. Izan ere, urte hartan frontoia estali egin zuten eta teilatua jarri zioten. Gaur egun pilota edo palan jokatzeaz gain, herriko hainbat ospakizunetarako ere erabili ohi da.



± 1950 1950eko hamarkadako argazkia. Handik gutxira estali zuten. Aldameneko zuhaitzia ere ikus daiteke.



2002 1960. urtetik dago estalita frontoia. Frontoiaz gain, baina, inguruak ere oso aldatuta daudela ikus dezakegu.

Zumelaga
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!


San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

Zuri Beltz
margoak

Barnealde eta kanpoaldean
erreforma

Pintura zerbitzu osoa
Moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59
Bergara



Manufacturas LARRAÑAGA
LAN-BABESERAKO ARTIKULUAK

•Seinaleztapena
•Jantziak

Leizeaga 1 BERGARA Tel. / faxa 943 76 59 53.

Nutrizioari buruzko ikastaroa

Otsailaren 18tik 28ra

Irakaslea: Mireia Alberdi

Ordutegia:

astelehen eta eguenetan

19:00etatik 20:30era

Non:

Kartzela zaharrean

Izena emateko azken eguna:

OTSAILAREN 13a

Prezioa:

Jarduneko bazkideek 12 EURO

Gainerakoek 15EURO

Informazioa eta izena ematea:

JARDUNen bulegoan (Kultura etxean).

943 76 36 61 / 08 19



ARREGI AROZTEGIA



Sukaldeak

Arozlan mekanikoak

Ateak

Horma-armairuak

Tarimak eta Parketak

Neoprenozko juntadun

egurrezko leihoak

PVCzko leihoak



Tailerra Urteaga, 20. 943 76 11 73 Erakusketa Bidekurutzeta, 38. 943 76 31 03

GRUPO **RKUZ** 1950-2002



Arkauz zure etxea da.




Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA



Asuncion, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

